



# Hezkuntza-premia Bereziak Lehen-mailako Hezkuntzan

---

**Curriculuma Eratzeko eta Irakasleen  
Prestakuntzarako Institutua**

**Hezkuntza-Premia Berezien Arloa**

**Dokumentu honetan esku hartu duen lan-taldea:**

Angel de Carlos García  
Amaia Arregi Martínez  
Trinidad Rubio Carcedo

**Laguntza eskaini dute:**

Alicia Sainz Martínez  
M<sup>a</sup> Luisa Jaussi Nieva  
Rafael Mendia Gallardo

## **AURKEZPENA**

*Eskola muinbakar eta integratzaile batek ikaslegoaren hezkuntza beharrizan ugariak onartu behar ditu eta, ezberdintasun hori kontuan hartuz, eragozpen gehiago dutenen alde, hezkuntza premia bereziak dituztenen alde, alegia, lehentasuneko jarduera eta estrategia bereziak eskaini.*

*Arrazoi ezberdinek eragindako aniztasun horri aurre egiteak Lehen Hezkuntzako etapa honetan zehar ikasle guztien eta haietako bakoitzaren hezkuntza beharrizanei erantzutera datozen curriculum egokitzapenak antolatzea eskatzen du.*

*Hezkuntza premia berezidun ikasleentzako hezkuntza helburuak gainontzeko ikaslegoarentzako ezarritakoak dira: garapen pertsonal eta sozial zabalena lortzea, ahalik eta hezkuntza testuinguru normalduenean. Helburu hori erdiestekotan ezinbestean egokitu eta malgutu behar ditu bere egiturak Hezkuntza Sistemak, horrela ikasleen beharrizan orokor zein berarizkoei erantzun ahalik eta egokien bat eman ahal izateko.*

*Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritzak, gizartearentzat bere kide ororen, hezkuntza premia berezidunak barne, eskolatzeak duen garrantziaz oharturik, testuinguru orohartzaile batean hezkuntza-erantzun egoki bat ematea ahalbidetzen duten laguntza eta orientabiderako tresnak eskaintzea nahi du.*

*Ildo horretan, dokumentu honek hainbat ikasle taldek agertzen dituen ezaugarri eta beharrizan orokorrei buruzko informazioa eskaini nahi dio irakaslegoari, bertan aurkezten diren jarraipide eta estrategiak egoera ezberdinetan irakaslegoaren eskuharmena planteatzerakoan abiapuntu gerta daitezkelakoan.*

*Edurne Gumuzio Añibarro*

**PEDAGOGI BERRIKUNTZARAKO ZUZENDARIA**

# Aurkibidea

## LEHEN ZATIA

### LEHEN-MAILAKO HEZKUNTZAREN EZAUGARRI OROKORRAK

Esparru orokorra.....	9
Lehen-mailako Hezkuntzaren helburuak .....	13
Etaparen ezaugarriak .....	15

## BIGARREN ZATIA

### HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIAK DITUZTEN IKASLEAK LEHEN-MAILAKO HEZKUNTZAN

Entzumen-defizita duten ikasleak .....	27
Ikusmen-defizita duten ikasleak .....	33
Adimen-urritasuna duten ikasleak.....	39
Autismoa duten ikasleak .....	45
Mugimen-defizita duten ikasleak .....	53
Gaitasun handiak dituzten ikasleak .....	59
Ingurune kaltetuan edo egiturarik gabeko ingurunean bizi diren ikasleak .....	63

## HIRUGARREN ZATIA

### HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIAK DITUZTEN IKASLEEI ZUZENDUTAKO HEZKUNTZA-ERANTZUNA

Aniztasunaren trataera, Hezkuntza-premia bereziei erantzuteko esparru orokor gisa.....	71
Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei erantzun ahal izateko, kontuan hartu behar diren Ikastetxearen Curriculum-Proiektuko zenbait aspektu .....	75
Ikasgelaren programazio egokitua .....	81

## ERASKINAK

Hasierako ebaluaziorako laguntza-tresnak.....	99
HPBak dituzten ikasleekin egin behar den lana zehazteko jarraitu behar den prozesuaren adibideak .....	117

Lehen zatia

Lehen-mailako Hezkuntzaren  
ezaugarri orokorrak

---

## Esparru orokorra

Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Legea, urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoa (BOE 1990ko urriak 4), unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzaren oinarrizko lege-erreferentzia da.

Bertan jasota daude, beste batzuen artean, gizarteak Hezkuntza-Sistemarentzat ezarri dituen helburuak, hezkuntza-ekintza orientatu behar duten printzipioak, Etapa bakoitzeko egituraren eta curriculumaren ezaugarriak, bai eta hezkuntza-antolamenduari eta administrazioari buruzko aspektuak ere.

Lehen Titulua, II. kapitulua, espezifikoki Lehen-mailako Hezkuntzari dagokio, eta hau sei urtetik hamabi urte bitartera iraungo duten sei kurtso akademikotan ezartzen du; eta horrekin batera, bere helburuak eta xedeak ere ezartzen ditu. II. kapitulu honekin batera, V. kapitulua ere, bere 36. eta 37. artikuluetan, Hezkuntza-premia bereziei dagokie:

*"Hezkuntza-sistemak beharrezkoak diren baliabideak prestatuko ditu, Hezkuntza-premia bereziak, aldi batekoak nahiz iraunkorrak, dituzten ikasleek sistema horren barruan ikasle guztientzat orokorrean ezarritako helburuak lor ditzaten." ( LOGSE, Lehen Titulua, II. kapitulua, 36-I artikulua).*

Lege arau hau maila baxuagoko beste batzuek osatzen eta garatzen dute. Horien artean aurkitzen da ekainaren 14ko 1006/1991 Dekretua, Lehen-mailako Hezkuntzari dagozkion gutxienezko irakaskuntzei buruzkoa. Dekretu honetan, Hezkuntzari dagokionez eskumena duten Autonomi Elkarteek iradokizunak eta proposamenak jaso eta aztertu ondoren, Etaparen Helburu Orokorrak, oinarrizko edukinak eta ebaluazio-irizpideak finkatu dira; hain zuzen ere, eskola-aldiaren %55i dagozkionak.

Euskal Autonomi Elkarteak, abuztuaren 11ko 237/1992 Dekretuak Lehen-mailako Hezkuntzaren curriculumak ezarri zuen, garatzen lagunduko dituen gaitasunak zehaztuz.

Gaitasiun hauek, edonolako hezkuntza-ekintza bati aurre egiteko unean, kontuan hartu behar dira eta erreferentzi esparru bat izan behar dute. Ondokoak dira:

a) Norberaren gorputza ezagutu eta estimatzea eta hau garatzen laguntzea, osasun, higiene eta ongizate-azturak hartuz eta jokabide jakin batzuek osasunean eta bizi-kalitatean duten eragina baloratu.

b) Ohiko ihardueretan eta talde-harremanetan autonomiaz jokatzeko, erabakiak hartzeko eta harreman afektiboak izateko aukerak garatu.

c) Talde-iharduerak planifikatzen eta burutzen laguntzea, demokratikoki ezarritako arauak eta erregelak onartzea, norbere helburuak eta interesak taldeko beste kideenekin egituratzea, ikuspegi desberdinak errespetatu, eta norberari dagozkion erantzukizunak gain hartzea.

d) Gizarte-egoera ezagunetan beste pertsonetako harreman orekatuak eta konstruktiboak ezartzea, eta elkartasuneko jokabidea izatea, sexuan, klase sozialean, sinesmenetan, arrazan eta beste ezaugarri indibidual nahiz sozialean oinarritutako diskriminazioa baztertuz.

e) Ingurune natural eta sozialeko gertakarien eta fenomenoaren arteko erlazioak ulertzea eta ezartzea eta, ahal den neurrian, ingurugiroaren defentsan, zaintzan eta hobekuntzan aktiboki laguntzea.

f) Kultur ondarea ezagutu, baloratu eta gozatzea, bere artapenean eta hobekuntzan parte hartzea, eta hizkuntz eta kultur-aniztasuna herrien eta norbanakoen eskubide gisa errespetatzea, eskubide honekiko interes eta errespetu-jarrera garatu.

g) g.1. Gazteleraz eta euskaraz ahozko eta idatzizko mezuak ulertu eta sortzea, komunikazio-asmo eta testuinguru desberdinak kontuan hartuz.

g.2. Atzerriko hizkuntza batean ahozko eta idatzizko mezu errazak testuinguru baten barruan ulertu eta sortzea.

h) Ahozko, gorputzezko, ikusmeneko, plastikazko, musikako eta matematikako espresio-bideen bitartez komunikatzea, sentiberatasun estetikoa, kreatibitatea eta obra edo adierazpen artistikoez gozatzeko gaitasuna garatu.

i). Eguneroko esperientzian oinarrituz galderak eta arazoak identifikatu eta planteatzea, hauek modu kreatibo eta autonomoan ebazteko, eskura dituen ezagutzak eta baliabide materialak bai eta beste pertsonen lankidetzak eta laguntza ere erabiliz.

*j) Arazo sinpleen ebazpenean dagokion informazioa lortzeko prozedura egokiak erabiltzea, eta hau kodeen bidez irudikatzea, bere ebazpenerako beharrezkoak diren denbora eta material-baldintzak kontuan hartuz.*

*k) Giza bizitza eta elkarbizitza arautzen duten oinarritzko baloreen garrantzia behar bezala estimatzea eta horien arabera jokatzeko.*

Euskal Autonomi Elkarteko Dekretu hau osatuz, eta bere aplikazio-prozesua arautzeko eta orientatzeko, ondoko bi agindu hauek xedatu ziren:

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa-Kontseiluaren 1993ko maiatzaren 5eko Agindua, Lehen-mailako Hezkuntzako ebaluazioa arautzen duena.

Hezkuntza, Unibertsitate, eta Ikerketa-Kontseiluaren 1993ko maiatzaren 5eko Agindua, Lehen-mailako Hezkuntzako curriculumaren egokitzapenak arautzen dituena.



## Lehen-mailako Hezkuntzaren helburuak

Etaparen oinarritzako hezkuntza-helburua da *haurraren garapen pertsonala ahalbidetzea, dagokion gizarte-taldean integra dadin, eta bertan modu autonomoan eta kreatiboan joka dezan.*

Hau lortzeko, Eskolak duen zeregina da " *haur guztiei hezkuntza amankomun bat eskaintzea, honi esker haurrak oinarritzako kultur-elementuak eskuratu, ahozko espresioari, irakurketari, idazketari eta kalkulu aritmetikoari dagozkion ikaskuntzak jaso, bai eta bere ingurunean arian-ariko ekintza-autonomia lortu dezan*" (LOGSEren 12. artikulua ).

Aurrekoaren arabera, Lehen-mailako Hezkuntzaren hiru helburu, beren artean lotura handia dutenak, bereiz ditzakegu:

- *Ikaslea bere ingurunean autonomikoki molda dadin eta joka dezan lortzea.*
- *Norbanakoaren gizarteratze egokia lortzea, eta honek elkarbizitza demokratikorako jarrera egokiak izatea.*
- *Ondoren aipatzen direnei buruzko oinarritzako ikaskuntzak modu eraginkorrean eta funtzionalean eskuratzea:*
  - a) hizkuntz-mota desberdinak interpretatzea eta eskolan sartu aurretik duten komunikazio-gaitasuna areagotuko duten espresio-baliabideak erabiltzea.*
  - b) Beren ingurunea interpretatzeko eta bertan aktiboki eta kritikoki esku hartzeko behar dituzten kontzeptuak, prozedurak eta jarrerak eskuratzea.*
  - c) Esperientzia afektiboak, kulturarekin identifikatzeko eta beren ingurunekeo bizitza sozialean indibidualki eta kolektiboki parte hartzeko beharrezkoak dituzten gizarte eta ezagutza-motrizak garatzea.*

Helburu hauek lortzeko, uneko ~~muinbakartasunaren~~ printzipioa bete behar da, *oinarritzako irakaskuntza amankomun* honek ikasle guztiei aukera berdina eskaini DIEZAZKIEN. Printzipio honi loturik, *aniztasunaren trataerak*, ikasleen hezkuntza-baldintzei erantzun behar die, ikasgelan dauden interes, motibazio eta gaitasun desberdinei egokituz.

## Etaparen ezaugarriak

### **Etaparen unitate-izaera.**

Lehen-mailako Hezkuntza, Haur-Hezkuntzaren eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren artean dago kokatuta. Sei urtetik hamabi urtera bitarteko aldia hartzen du, *derrigorrezko eskolatzearen hasiera markatuz*.

Etaparen unitate-izaera ondokoen bidez adierazten da:

- ♦ Muinbakartasunaren eta aniztasunarekiko arretaren printzipioak,
- ♦ helburu eta xede berberak,
- ♦ prozesu bakar bat, curriculumaren arian-ariko garapenarekin.
- ♦ zikloko irakasle-taldea euskarriztat duen antolamendua, ikasle-taldeen heterogeneotasuna.

Eta honetan hasten eta finkatzen dira oinarrizko ikaskuntzak, alegia ikasleen heltze-garapenerako, bai eta geroagoko hezkuntza-prozesuen eraginkortasuna ziurtatuko duten funtsezko tresna sozio-kulturalak eskuratzeko ere, oso garrantzitsuak diren oinarrizko ikaskuntzak.

### **Zikloen ezaugarriak eta banaketa**

Eta bi urteko hiru ziklotan banatuta dago; lehenengoa 6 urtetik 8 urtera, bigarrena 8 urtetik 10 urtera eta hirugarrena 10 urtetik 12 urtera.

Eta ziklotan antolatzearen funtsezko helburua da iraupen handiagoko denbora-unitateak ezartzea, ikaskuntza jakin batzuk lortzeko aukera handiagoa eskaintzeko, horrela, ikasleen erritmo eta prozesu desberdinei egokitzea ahalbidetuz.

Zikloko barne-kohesioaren faktore garrantzitsu bat da zikloko irakasle-talde bat izatea; hau tutoreek eta ziklo horretako taldeekin lan egiten duten profesional desberdinek osatuko dute (tutoreak, laguntzako irakasleak, irakasle espezialistak...).

**Lehen Zikloa  
(6-8 urte)** Bere zeregin nagusia oinarrizko ikaskuntzetan (teknika instrumentalak: irakurketa eta idazketa) hastea da. Honek ez du Haur-Hezkuntzarekiko haustura bat inplikatu behar, alderantziz, etapa honetan garatutako gaitasunetan oinarritu behar du. Ziklo honetan ikasleek irakaslearekiko duten menpekotasuna eta segurtasun-beharra oraindik ere garrantzitsua da.

**Bigarren Zikloa  
(8-10 urte)** Ziklo honetan oinarrizko trebetasunak finkatzen dira eta, ikaskuntza berrien esperientziak eta motiboak eskuratzeko toki gisa, ingurunerako hurbilketa areagotzen da. Talde-lanari garrantzi handiagoa ematen zaio eta ikasleek irakaslearekiko duten autonomia sustatzen da.

**Hirugarren Zikloa  
(10-12 urte)** Oinarrizko trebetasunen finkapena ahaztu gabe, konplexutasun handiagoko zereginei hasiera ematen zaie. Une honetan ikasleek ikasteko jarrera oso irekia dute eta, ondorioz, pentsamendu logiko baterako gaitasuna dutela pentsa dezakete irakasleek, baina ez da hala. Lan autonomia sakontzeko unea da, lan-metodo egokiak maneiatuz.

### **Curriculumaren antolamendua**

Curriculumean ikasleei irakatsi beharrekotzat hartzen diren ezagutzak antolatzeko modu asko dauden arren, arloen arabera banetaka bat aukeratu da.

Arlo hitzak esanahi desberdina du hezkuntza-etapa desberdinetan. Lehen-mailako Hezkuntzan irakasleentzako erreferentzia argi bat da, edukinak antolatzeko modu erabilgarri bat; honek ordea ez du izan behar ikasleen uneen edo ihardueren antolamendu bereizi bat. Alderantziz, komenigarria da, bai eta beharrezkoa ere, arlo desberdinen edukinak tratamendu didaktiko orohartzaile batean integratzea; Irakasleentzat arlo jakin bateko helburu zehatz bat izan daitekeena, ikasleentzat esperientzi bat edo jolas bat izan daiteke.

Arlo guztiek garrantzi bera dute eta etaparen helburu orokorrak lortzen lagundu behar dute.

Lehen-mailako Hezkuntzako curriculum-arloak modu integratuan eta globalizazio-irizpideei erantzunez aurkeztea komeni da; eta ondokoak dira:

*Natur eta Gizarte-Ingurunearen Ezaguera*

*Arte-Hezkuntza*

*Gorputz-Hezkuntza*

*Euskara eta Gaztelania*

*Atzerriko Hizkuntza (2. ziklotik aurrera)*

*Matematika*

*Erljio-irakaskuntza, derrigorrezko eskaintza da ikastetxeentzako eta aukerako irakasgaia ikasleentzako.*

Pertsonaren heziketa oso batekiko kezka curriculumean, ikasketa eta disziplina-planteamenduez gain, eguneroko bizitzarekin lotura zuzena duten beste planteamendu eta ikuspegi orokor batzuk sartzea eragin du. Aspektu berri hauek Zehar-Lerro gisa aurkezten dira.

Zehar-lerroek ez dute edukin berririk inplikutzen, baina bai kontzeptuzko sare desberdin bat; gainera, hauetan jarrerazko edukinek garrantzi espezifikoak dute. Ez dira arlo berriak, curriculum guztia hartu behar duten printzipio didaktiko orokorrak baizik. Beraz, edozein curriculum-elementuri buruzko erabakiak hartzean dimentsio hau kontuan hartu behar da.

Euskal Autonomi Elkarteko Curriiculum-Diseinuan eta Lehen-mailako Hezkuntzarako zenbait Zehar-Lerro proposatzen dira:

- *Sexu-Berdintasunerako Hezkuntza edo Hezkidetzak.*
- *Giza Eskubide eta Bake-Hezkuntza.*
- *Osasun-Hezkuntza.*
- *Kontsumo-Hezkuntza.*
- *Komunikabide-Hezkuntza.*
- *Bide-Hezkuntza.*

### **Irakaskuntza-ikaskuntzaren printzipioak**

Proposatutako administrazio eta hezkuntza-esparrutik abiatuz burutu beharko dituen erabakiak hartzean irakasle-taldea orientatzeko asmoz, irakaskuntza-ikaskuntza eta ebaluazio-prozesuetan kontuan hartu behar diren zenbait norabide edo printzipio ematen dira. Etapa honetan ondoko aspektuei dagozkie:

- ***Hizkuntz tratamendua:***

Ikastetxeko hizkuntz ereduetatik eta Haur-Hezkuntzan jarraitutako eskola-ibilbidetik abiatuz, irakasle-taldeak erabakiak hartuko dituzten hizkuntzek curriculumean duten presentziari eta aurrerapenari buruz, irakas-arloei buruz, lehenespenezko metodologiari buruz, bultzatuko diren erabilerei buruz... Garrantzi berezia du irakurketaren eta idazketaren ikaskuntza burutuko den hizkuntzari buruzko erabakiak. Hori guztia, euskararen normalkuntzarako legea, bai eta erabaki egokiak hartzen lagunduko duten irizpideak eskaini ditzaketan irakaskuntza elebidunari buruzko ikerketak ere, kontuan hartuz.

- ***Prozeduren ikaskuntza:***

Kontzeptuzko edukinei beti eman zaien garrantziaren aurrean, etapa honetan prozedurazko edukinek duten funtzio garrantzitsua nabarmendu nahi da. Zentzu honetan, prozeduren ikaskuntza ikasgelan garatzen den ihardueraren ardatz antolatzaile bilakatzen da.

- ***Ikaskuntza eta talde-elkarreragina:***

Ikaskuntza elkarreragin sozialeko iharduera bat denez, ikasteko, harremanak sortzeko, arazoak ebazteko... toki gisa, taldeari eman behar zaion garrantzia nabarmentzen da. Irakaslearen funtzio nagusia da taldea osatzen laguntzea eta horren barruan elkarreraginak ahalbidetzea.

- ***Ikusmolde orohartzailea:***

Etaparen honetan eta ikasleen ezaugarri psikologikoak kontuan hartuz, edukinak antolatzeko modurik komenigarriena eta koherenteena da, haurraren ikuspegitik, ikusmolde orohartzaile bat ematea. Plangintza-ikuspegi honetatik, arlo desberdinei dagozkien edukinak bizi-esperientziei, taldearen interesei eta bizi diren inguruneari lotutako ikaskuntza-egoera batetik abiatuz egituratzen dira.

- ***Antolamendua:***

Denbora, espazioa, ikasleen taldekatzea, irakasle-taldeak, etab... bezalako aldagai batzuen antolamenduak garrantzi handia du, hezkuntza-prozesua baldintzatzen dute-eta. Beraz, irakasleen hezkuntza-asmo eta gogoeta jakin baten emaitza den antolamendu-egitura ordenatu bat bilatu behar da, giza baliabideen, adin zehatz baten interesen, eta abarren... arabera.

- ***Aniztasunaren trataera:***

Etaparen izaera muinbakarra ulertzeak, ikasle guztiei ikaskuntza eta harreman-esperientzia amankomunak bermatzea suposatzen du, beren posizio soziala, ekonomikoa, sexua, arraza, eta beste ezaugarri indibidual edo sozial batzuk kontuan hartu gabe.

Halere, gaitasun pertsonalak, garapen-uneak, afektibotasun eta garapen-jarraipideak, etab... anitzak dira; eta hauek ikaskuntza-estilo eta erritmo aniztetan, harreman-modu ugarian, interes desberdinetan, etab... islatzen da ikastetxeetan.

Egungo curriculum-ereduaren ezaugarriek hezkuntza-asmoak arian-arian zehaztea ahalbidetzen dute, horrela, hezkuntza-erantzuna ikasleen ezaugarriei egokitzea ahalbidetuz. Curriculumaren arian-ariko zehaztapen-maila desberdine esker (OCD, ICP, ikasgelaren programazioa), hau ingurunearen beharrei eta ikasle-talde zehatz bati egokitu ahal izango zaio.

### **Ebaluazioa**

Ebaluazioa hezkuntza-prozesuaren funtsezko zatitzat hartu behar da, hezkuntza-egoera jakin batean presentzia duten testuinguru-aldagai guztietan eragina izanez, ikaslearen eta irakaslearen lana etengabe bideratzeko.

Bigarren zatia

Hezkuntza-premia bereziak dituzten  
ikasleak Lehen-mailako Hezkuntzan

Zenbait lege eta arauditan zuzenean HPBak dituzten ikasleak aipatzen dira, beren hezkuntzari aurre egiteko orientabideak emanez. Horrela, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Legeak Lehen-mailako Hezkuntzaren oinarrizko irakaskuntza-izaera zehazten du eta, beraz, bere izaera muinbakarra, ikasleei, desberdinak izan arren, prestakuntza-aukera berberak eta hezkuntza-esperientzia berberak eskainiz. *Etapak hau HPBak dituzten ikasleen ezaugarriak egokitzea beharrezkoa da.* Aldi bateko HPBak nahiz HPB iraunkorrak dituzten ikasleek, hezkuntza-sistemaren barruan ikasle guztientzat orokorrean ezarritako helburuak lortu ahal izango dituztela adierazten da lege eta araudi hauetan. Euskal Eskola Publikoaren Legean adierazten denez, “balio-urritasun fisikoak edo psikikoak konpentsatuko dituzten neurri indibidualak hartzeko ahalegina egingo da. Prebentzioa, identifikazio goiztiarra, testuinguru barneko ebaluazioa eta hezkuntza-premia berezientzako erantzun egokia bermatuko duten neurriak hartuko dira”.

Hezkuntza-etapa honetan aniztasunarekiko arretaren printzipioak lehentasuna du; eta hezkuntza-erantzuna honetan oinarrituz antolatu behar da. Eskola-sistemak ikasle guztien ezaugarriak egokitzen saiatu behar du beren hezkuntza-premiei erantzun ahal izateko; eta beren hezkuntza-prozesuan arazoak dituzten ikasle jakin batzuen kasuan, hezkuntza-premia horiek berezitat har daitezke.

Ikasle batek HPBak dituela esaten da ikasteko zailtasuna badu eta, ohiko neurriak erantzun egoki bat emateko nahikoak ez direnez, hezkuntza-neurri bereziak eskaintzea behar badu. Zailtasun horien jatorria funtsean elkarreaginean dago; eta ikaslearen baldintza pertsonalen eta bere ingurunearen ezaugarrien arabera dira. Beraz, hezkuntza-premia jakin batzuk bereziak bilakatzea zenbait faktoreren arabera da: ikasle jakin baten egoera pertsonala, bere arazoak, bai eta bera eskolatuta dagoen hezkuntza-testuingurua ere.

Ikuspegi berri honetatik interesatzen zaigu *ikasleen premiak ezagutzea*, ahalik eta garapen pertsonal eta sozial handiena lortzeko behar duten laguntza pedagogikoa eman ahal izateko. Ez zaigu interesatzen beren defizit-mota eta maila.

HPBak jarraipen batean agertzen dira: txikienetatik, alegia curriculum arruntean aldaketa txiki batzuk eginez erantzun daitezkeenetatik, larrienera, alegia hezkuntza-neurri bereziak behar dituztenetara. Azken neurri hauek ikasle gehienei eskaintzen zaien erantzun-motatik urrunduko dira. HPBak iraunkorrak edo aldi batekoak izan daitezke.

Etapak honetako ikasleek izan ditzaketen hezkuntza premia bereziak haien ezaugarri pertsonalen eta beren inguruneko gizarte eta hezkuntza-baldintzen arabera izango dira. Hezkuntza-etapa honetan ager daitezkeen hezkuntza-premia bereziak taldeka bana daitezke ikasleen zailtasun nagusiak kontuan hartuz. Honek ez du esan nahi defizit jakin bat duten ikasleek derrigorrez hezkuntza premia berberak izan behar dituztenik, ez eta hauek beti izaera “berezia” izan behar dutenik ere. Are gehiago, testuinguru jakin batean “berezitat” hartzen diren hezkuntza-premia zehatz batzuk, jadanik ez dira “berezitat” hartzen hobeto egokitutako hezkuntza-egoeratan. Arazo desberdinen azterketa eta analisisa errazteko, horregatik ikasleak defizitaren arabera sailkatu gabe, ondoko taldeak ezar daitezke:



- Arazo intelektual edo emozional sakonik izan gabe, entzumen, ikusmen edo mugimen-defizitak dituzten ikasleak. Curriculum arrunterako sarrera errazteko, funtsean baliabide teknikoak, laguntza bereziak eta komunikazio-sistema alternatiboak beharko dituzte.
- Ingurune soziokultural kaltetu batekoak izanik edo kultura desberdin batekoak izanik, eskolak proposatzen dituen ikaskuntza-zereginei egokitzeko zailtasunak dituzten ikasleak.
- Oinarrizko arloetako (hizkuntza eta matematika) edukin instrumentalen eskurapenari lotutako ikaskuntza-zailtasun espezifikoak dituzten ikasleak. Hezkuntza indartzeko neurriak hartu beharko dira, edukinen sekuentziazioan eta estrategia metodologikoetan aldaketak sartuz.
- Defizit intelektual baten ondoriozko ikaskuntza-zailtasun orokorrak dituzten ikasleak. Hauek curriculumaren egokitzapen handiak beharko dituzte beren eskolaketa osoan zehar.
- Garatzeko nahaste orokorrak dituzten edo eragin larria duten ikasleak; hauen eskolatzea funtsean ikasgela egonkorretan garatuko da.
- Ikasteko zailtasunak eragiten dituzten emoziozko eta/edo jarrerazko zailtasunak dituzten ikasleak.
- Gaitasun handiak dituzten ikasleak.

Ondoren, ikasle jakin batzuek dituzten ezaugarri orokorrak deskribatuko dira; hauek defizit desberdinen ondorioak dira, eta beren premiei erantzun ahal izateko hezkuntza-neurri bereziak beharko dituzte. Honek ez du esan nahi beste premia-mota batzuk ezin izan ditzaketenik (osasun-premiak, laguntza-premiak...), gure arreta hezkuntzaren aspektuetan fokalizatuko dugula baizik, hauek baitira dokumentu honen ikuspegitik interesatzen zaizkigunak.

Hezkuntza-ekintzarako jarraipideak eskaintzeko helburu nagusiarekin, ondokoak kontuan hartuko dira orokorki: ikasleek beren ingurunearekiko harremanean duten izaeran eta jokabidean defizitak nola adierazten diren erakusten duen erreferentzi esparrua, aurrekoaren ondoriozko HPB orokorrak zeintzuk diren eta, hauei ahalik eta hezkuntza-testuinguru normalizatuenean erantzuteko, hezkuntza-ekintzaren jarraipide egokienak zeintzuk diren.

# Entzumen-defizita duten ikasleak

## *Ezaugarri orokorrak*

### ***Definizioa***

Gorreria duen pertsonaren definizioa ondokoa izan daiteke: bere entzumena eguneroko bizitzarako funtzionala ez denez, ahozko hizkuntza espontaneoki eskuratu ezin duen pertsona da; eta horren ondorioz, hizkuntza irakasteko/ikasteko teknika bereziak behar ditu. Hezkuntza-ekimen bereziak behar dituen ikasle-talde heterogeneo bat da, beren entzumen-motagatik eta mailagatik bakarrik ez, baita defizit horrek beren eskola-prozesuan, beren harreman sozialetan, beren garapen pertsonalean, etab... duen eraginagatik ere. Lau dira heterogeneotasun hori mugatzen duten faktoreak:

- Entzumenaren galera-maila
- Gorreria zein adinetan hasi den
- Eragiten duten arrazoiak
- Hezkuntza eta komunikazio-faktoreak

### ***Entzumenaren galera-maila***

Entzumenaren galera ebaluatzeko bi aldagai hartzen dira kontuan: *intentsitatea*, dezibeliotan neurtzen dena eta, *maiztasuna*, soinu-uhinen bibrazio-abiadurari dagokiona eta hertzetan neurtzen dena. Entzumenaren galeraren intentsitatea da haur gorren garapenean eragin handiena duena, bai hizkuntza-mailan, bai eta ezagutza, gizarte eta hezkuntza-mailan ere. Halere, ebaluatzeko orduan, kontuan hartu behar dira, entzumenaren galeraren kantitateaz gain, geratzen den entzumenaren kalitatea eta funtzionaltasuna ere, hau da, horien optimizazio-maila.

### ***Entzumenaren galera zein unetan gertatzen den***

Galera gertatzen den unek eragin handia du haurren garapenean. Zenbat eta urte gehiago dituen haurrak, orduan eta esperientzia handiagoa izan du hizkuntzarekin eta, beraz, bere hizkuntz eboluzioa hobea da. Hitz egiten hasi aurretik gor geratu diren haurrek, alegia hizkuntza bereganatu aurretik entzumena galdu duten haurrek, beraientzat guztiz berria den ahozko hizkuntza ikasi behar dute, soinuarekin ia esperientziarik izan gabe.

### ***Arrazoiak***

Gorreri hereditarioa eta beste lesio edo arazo batzuei loturik egon ohi diren gorreriak eragiten dituzten arrazoiak bi motakoak dira: oinarri bat dutenak, batez ere anoxiak (erditzeko unean oxigenoa falta izatea), RHen bateraezintasunak edo errubeolak eraginak direnean.

**Hezkuntza eta komunikazio-faktoreak.**  
*Gurasoen jarrera*

Haur gorren garapenean eragin handia izan dezaketen beste aldagai batzuk ere badira. Horietako bat da seme-alabaren gorreriaren aurrean gurasoek duten jarrera eta erreakzioa. Beharrezkoa da hauek haurraren gorreria onartzea eta horren ondorioez ohartzea, komunikazio-baliabide desberdinak erabiltzen hasiz eta bere autonomia pertsonala mugatuko duten jarrerak saihestuz.

*Inteligentzia*

Haur gorren artean, entzumenaren duten haurren arteko desberdintasun berberak daude. Piagetek deskribatutako estadio desberdinak igarotzen dituzte, baina nolabaiteko denbora-desfasea erakusten dute; eta desfase hau areagotu egiten da pentsamendu hipotetiko-deduktibo bat inplikatzeko duten eragiketa formaletan, zenbaitetan estadio honetara iristen ez direlarik. Pertzepzio zuzenari lotutako pentsamendu zehatzagoa eta abstrakzio-gaitasun urriagoa dituzte, neurri batean, ahozko komunikazioaren nagusitasuna ematen dion hezkuntza-sistema baten ondorioz (beren hizkuntza naturala ikusmenezkoa da).

*Ikaskuntza*

Jokabidearen autoerregulazioan eta plangintzan hizkuntzak duen eraginaren ondorioz, haur gorrek zailtasunak eta atzerapenak dituzte aspektu honi dagokionez. Ezagutzak eskuratzeko, informazioa jaso behar da eta hau egoki lantzen ikasi behar da. Haur gorrek ahozko eta idatzizko komunikazioan dituzten arazoek informaziorako sarbidea neurri handi batean mugatzea eragiten dute eta, ondorioz, ikaskuntza-prozesuak moteldu egiten dira.

*Garapen afektiboa*

*sozio-*

Gorreria duten pertsonen harreman sozialek eta afektiboek ezaugarri bereziak dituzte: segurtasun-falta ageri dute, soinu-pertzepziorik ez dutenez, hautematen ez dituzten arrisku-egoeren aurrean babesteko eta erantzunak aurreratzeko zailtasunaren ondorioz... Ahozko komunikazio-zailtasunek (mezuak bidali eta jaso) egoera askotan frustrazio-erreakzio bat eragiten du, eta honek epe luzera pertsona gorraren nortasuna egituratzen du.

*Hezkuntza-premiak*

-Ahozko hizkuntzarekiko alternatiboak eta/edo osagarriak diren komunikazio-sistemak erabiltzeko premia, horrela, ingurune desberdinetan elkarreragina eta eskola-ikaskuntzetan aurrerapena lor dezaten.

-Entzumen-defizita "kompentsatzeko" premia, haurrari bere ingurunean gertatzen denari buruzko informazio gehiago eskainiz. Herretarako, beste sarbide batzuk, informazioa prozesatzeko denbora gehiago, azalpen eta informazio indibidualak, kokaera egokia, etab... erabiliko dira.

-Identitate eta autokontzeptu positibo bat ahalbidetuko duen garapen emozional orekatu baten premia, identifikazio-ereduen presentzia (gorrak diren pertsona helduak) bultzatuz.

## **Hezkuntza-erantzuna**

### **Lehentasuna duten aspektuak**

*Komunikazioaren garapena.* Ahozko hizkuntza eskuratu eta garatu ahal izateko ikasleak bere zentzumenezko aukera guztiak erabili behar ditu. Komunikazio-egoerek haur gorrei ahalik eta seinale gehienetara heltzeko aukera eman behar die, transmititzen zaien informazioa errazago uler dezaten. Esaldi isolatuak, galdera solteak, eta beste laguntzarik gabe ulertzen zailak diren testuingurutik kanpoko mezuak saihestu behar dira. Mintzamina eskuratzeko erabiltzen diren teknikak adierazgarriak, motibatzaileak eta funtzionalak diren komunikazio-egoeratan erabili behar dira. Hizkuntz-elkarreraginetan hizkuntzaren funtzio desberdinak erabili behar dira: eskatu, galdetu, sentimenduak adierazi, etab. Zeinuen hizkuntza, gorrieria duen pertsona batek eskura dezakeen bakarra, ahozko hizkuntzaren ikaskuntza errazteko baliabide garrantzitsu bat izan daiteke.

*Hizkuntzaren garapena.* Komunikatzeko gaitasunari estuki loturik, ahozko hizkuntza garatzeko ahalegin bat egin behar da, hau ingurune sozialarekin komunikatzeko baliabidea baita. Hizkuntzaren garapena ordura arte egindako birgaikuntza-lanaren araberakoa izango da. Eremu honetan esku-hartze espezializatuago batez arduratzen diren profesionalek landuko dute (Entzumen eta hizkuntz irakasleak edo espezifikoki gorrieriari buruzko prestakuntza jaso duten logopedak).

*Beste ikaskuntza batzuetarako sarbidea:* Curriculumaren funtsezko aspektuetako bat arlo instrumentetarako dira, beste ikaskuntza batzuetarako sarbideak baitira. Hezkuntza-etapa honetan zehar idatzizko kodea eskuratu eta garatzeak helburu nagusi bat izan behar du; hori dela-eta, garatu beharreko lana planifikatu eta sistematizatu egin behar da, ahozko kodea ez menperatzeak eragindako zailtasunen ondorioz.

*Gizartean moldatzea:* Ikaskuntza funtzionalen garapenak irakaskuntza-prozesuetan agertu behar du eta hauen funtsezko helburu bilakatu behar du. Ildo honetan ez dira ahaztu behar adin hauetako ikasleek beren ahozko ingurune sozialean moldatzeko aurkituko dituzten arazoak. Hauetako asko komunikazio-aukera mugatuei loturik daude, baina ikasleak duen komunikazio-gaitasuna edonolako izanda ere, bere adinean ohikoak diren funtzio sozialak burutu ahal izatea ahalbidetu behar da.

*Entzuten duten ikaskideekiko harremana:* Hezkuntzaren funtzio garrantzitsuenetako bat da ikasleen gizarteratzea bultzatzea, hau da, berdina diren artean garapen indibiduala eta kolektiboa erraztuko dieten talde-harremanak eta harreman pertsonalak sortaraztea. Horretarako, komunikazio-tailerrak sor daitezke, bertan entzuten duten ikasleak gorrieria duten ikasleekin

elkarreragiten entrenatzeko. Komunikazioa hizkuntzaren gainetik nagusitu behar da, eta elkarreraginak suposatzen duen ahalegina bai entzumenaren duenak bai eta gorria duenak ere egin dezaten saiatu behar da.

***Bere curriculumaren definizioa***

*Beste pertsona gor batzuekiko harremanak:* Kontuan hartu behar dira beste hurrekiko eta beste adinetako pertsona gorrekiko harreman eta komunikazio-premiak. Komunikazio-kode amankomunak izatea oso garrantzitsua da: beste ikasle batekin identifikatu ahal izateak bere identitatea garatzen eta, beraz, autoestimatzeko lagunduko dio.

***Helburuak eta edukinak***

- Beren ingurunean arauak ezagutzeko zailtasunak dituenek, beste ikasleek naturalki bereganatzen dituzten baloreei, arauari eta jarri buruzko edukin jakin batzuk berriaz eta sistematikoki landu beharko dira.
- Programazioan gorriari eta gorri munduari buruzko edukin sartzea.
- Zailtasun gehienak aurkituko dituzten curriculum-arlo jakin batzuetako edukin aldatzea; adibidez, Gaztelania eta Euskara, Atzerriko Hizkuntzak eta Arte-Hezkuntzaren arloko edukin batzuk. Gaztelania eta Euskararen arloan, entzuten duten ikasleengan alde aurrekotzat hartzen diren helburu eta edukin sartu beharko dira, bai ahozko hizkuntzari bai eta idatzizkoari ere dagozkienak. Atzerriko Hizkuntzaren egokitzapenak ikaslearen hizkuntz gaitasunaren arabera izango dira; idatzizko hizkuntzaren ulermenari eta adierazpenari dagozkien helburuek eta edukinek lehentasuna izango dute, testuinguru desberdinetan funtzionalak diren espresioak eta hiztegia landuz (jaketak, dendak, parkeak, garraio-bideak, etab.)
- Arte-Hezkuntzaren arloari dagokionez egokitzapen garrantzitsuak egin beharko dira musika-adierazpeneko edukin-multzoan, erritmoaren eta soinu-pertzepzioaren oinarriko aspektuak landuz: adibidez, bibraziozko-ukimenezko estimazioaren bitartez.

***Estrategia metodologikoak***

***Iharduerak***

- Indibidualki aurkeztu behar dira, hauek burutzeko jarraitu behar den prozesua ulertuko dutela ziurtatzeko.
- Lankidetzan arituz burutu beharko diren iharduerak planifikatzea, horrela, ikasleekiko elkarreragina bultzatuz.
- Ahal den guztietan informazioa bisualki aurkeztu behar da, ahoz transmititzen den informazioaren euskarri izan dadin, baina informazio hori jarraian aurkeztu behar da eta ez aldi berean (gardenkiak, testu idatziak, bideoak, eskemak...).

- Ahozko osagaia inoiz nagusia izango ez den eta batez ere komunikazio-baliabide bisualak, eskuzkoak edo sinbolikoak erabiliko diren egoerak diseinatzea, horretarako, ikaskuntza-prozesuan aktiboki inplikatzeko ahalbidetuko dieten araketa, behaketa eta egiaztapen-iharduerak, etab... planteatuz.

#### *Ikasleen taldekatzea*

- Ikaskide gorrekiko nahiz entzuten dutenekiko elkarreragina ahalbidetu behar da, lan-proposamenen arabera talde-mota desberdinak erabiliz.

#### *Baliabide materialak*

### **Curriculumerako sarbideak**

-Erabiliko diren material idatziak egokitu beharko dira, ikusmeneko informazio gehiago sartuz. Horretarako, zeinuak, marrazkiak edo grafikoak erabiliko dira.

-Idatzizko testuen hiztegian eta egitura sintetikoetan aldaketak eta laguntzak sartzea, ulertzen direla ziurtatu arte.

-Ahozko hizkuntzarekiko osagarriak edo alternatiboak diren (Bimodala, Hitz Osatua, Zeinu-Hizkuntza, etab) eta helburu eta edukinetarako sarbidea ahalbidetzen duten komunikazio-sistemak modu planifikatuan, koordinatuan eta sistematikoan erabiltzea. Beharrezkoa da, ahozko hizkuntzaz gain, modu erraz eta sinple batean besteekiko elkarreragina, informazioaren irudikapen mentala eta bere jokabidearen plangintza ahalbidetuko dizkion komunikazio-sistema bat erabiltzea.

Zeinu bidezko komunikazioari dagokionez, bi aukera daude: gorrek erabiltzen duten zeinu-hizkuntza, berezkoak dituen egitura eta arauekin, eta zeinu bidezko ahozko hizkuntza edo hizkuntza bimodala, zeinuak ahozko hizkuntzari laguntzeko erabiltzen dituen. Zeinuen hizkuntza erabiltzeak eta, beraz, ahozko hizkuntza bigarren hizkuntza gisa aurkezten duen eredu elebidun bat onartzeak arrazoi nagusi bat du: benetako hizkuntza eskuratzen ari da, honek haurren komunikazio eta ezagutza-garapenarentzat suposatzen dituen aukera ugariekin. Ahozko komunikazioarekin batera zeinu bidezko komunikazioa erabiltzea bereziki garrantzitsua da gorri larria edo sakona duten haurren kasuan edo funtzionalak ez diren entzumen-geldikinak dituzten kasuan. Idatzizko hizkuntza menperatzea oinarritzkoa da curriculumaren edukinetarako sarbidea errazteko, baina honek interbentzio-neurri indibidualak eskatzen ditu lehen mailatan. Ez da erraza oraindik eskuratu ez den edo gaizki eskuratu den ahozko beste kode baten adierazle den kode bat eskuratzea.

# Ikusmen-defizita duten ikasleak

## *Ezaugarri orokorrak*

### *Ikusmen-defizit motak*

Ikusmen-defizitaren larritasunaren arabera, bi talde handi ezar daitezke:itsuak direnez eta ikusmenik ez dutenez beren inguruenarekin harremanak izateko beste zentzumenak erabiliko dituzten haurrak, eta ikusmen-baxua dutela-eta ikusmen-urritasun larriak izan arren, ikusmen-estimulazio egoki batekin beren ikusmen funtzionala garatu ahal izango duten haurrak. Hezkuntzaren ikuspegitik, itsua izango da irakurketa eta idazketa-mailan Braille sistema erabili behar duen ikaslea, ezagutza-maila desberdinetara iritsi ahal izateko funtsean ukimen-esperientziak erabiltzen dituen. Eskola-mailan Braille-sistema erabili beharrik ez izan arren, baliabide materialak, laguntza optikoak, elektronikoak, etab... behar dituen, eta curricul arrunta jarraitu ahal izateko trebetasun eta abilezia jakin batzuk eskuratu behar dituen ikasleak ikusmen-urritasun larria izango du. Itsutasuna gertatu den unearen arabera, mota desberdinak sailka daitezke: sortzetikoa, jaiotzatik kanpoko munduarekiko harerremana beste zentzumenen bidezkoa izan denean, eta eskuratua, geroago agertzen dena.

### *Garapen psikosoziala*

Nabarmena denez, ikusmen-faltak eragina izango du bere garapen psikosozialean, kanpoko mundua ezagutzeko hain garrantzitsua den zentzumen hori ez izateak suposatzen dituen arazo ondozioz. Gabezia horrek bere inguruko espazioa ezagutzeko eta bertan mugitzeko, eta bere ingurunea eta horrekiko harremanak kontrolatzeko ahalmena mugatzen dio. Haurrak ukimenaren edo entzumenaren bitartez zatiturik jasotzen duen informazioa osatzen eta antolatzen saiatuko den hezkuntza-interbentzioak kontuan hartu behar ditu jasotzen duten informazioaren kantitateaz gain honen kalitatea ere mugatzen duten mugapen garrantzitsu hauek. Ingurunearekin harremanak izateko zailtasun hauek zenbaitetan pasibotasun handia eragin dezakete, estimulu-faltaren ondorioz, eta irakasleek hori konpentsatu behar dute haurren mugimen eta espazio-gaitasuna ahalik eta gehien garatuz eta inguruko objektuak eta espazioa mentalki irudikatzen lagunduz.

Oso garrantzitsua da hezitzaileek haurren zentzumenezko esperientziei lagungarri izango zaizkien ahozko informazioak ematea, ikusten edo ukitzen ari direna zer den eta nolakoa den azalduz.

Ikusmen-urritasunak dituzten ikasleengan, batez ere ikusmen-geldikinik gordetzen badute, sakabanatzeko edo hiperaktibitaterako joera ager daiteke. Pertzepzio-zailtasun hauen ondorioz, zail egiten zaie ikusten dutenari esanahi bat ematea, eta

ikusmen dutenak ez die ezer esaten. Egoera honetan, sakabanatu egiten dira eta gauza batetik bestera ibiltzen dira motibatuko dituen zerbaiten bila.

Ikusmen-urritasunak dituzten haurrek helduek gauzak erakustea eta horiek ezagutzen eta interpretatzen irakastea behar dute; eta horren ondorioz, beste ikasleen aldean hauen menpekotasunak gehiago irauten du. Pertsona helduaren interbentzioa laguntzan oinarrituko da, ikusmen-urritasuna duen haurrak bere autonomia garatzea ahalbidetuz.

***Ikusmen-  
gaitasunaren  
balorazioa***

Ikusmen-agudeziaren eta eremuaren balorazioa oftalmologo batek edo horretarako prestatutako pertsona batek egingo du. Honek laguntza tekniko bisualen premiari, intentsitate luminikoaren mailei, iharduera fisiko jakin batzuen desegokitasunari, eta abarri buruzko informazioa emango du.

Ikusmen funtzionalaren balorazioak, ikusmen-urritasunean aditua den aholkulari batek (CRI delakoa) egingo duenak, gizarte, ezagutza eta adimen-garapenari buruzko aspektuak jasoko ditu, non ikasleak premia jakin batzuk izan ditzakeela aurrikusten baita; eta horiekin batera, egokitzapenei eta ikaskuntza-arlo gehigarriei buruzko aspektuak ere jasoko ditu (mugikortasuna, eguneroko bizitzako iharduerak eta autolaguntza...). Horrez gain, laguntza teknikoaren erabilerari buruzko osasun-gomendioen jarraipen bat ere egingo du.

***Hezkuntza-Premia  
Bereziak***

- orientazioari eta espazioaren ezagutzari lotuak (non dagoen jakitea, tokiak ezagutzea eta horietan orientatzea)
- joan-etorriari lotuak (ibiltzea, ezaguna edo ezezaguna den espazio batean mugitzea)
- motrizitateari lotuak (oreka garatzea, mugimenduan segurtasuna izatea, mugimenaren koordinazioa, jarreraren kontrola...)
- eguneroko bizitzako autonomiari lotuak (higiene pertsonala, elikadura, joan-etorri autonomoak ingurune desberdinetan...)
- komunikazioari lotuak (ahozko mezuari behar bezala laguntzea, egoerari dagokion bezala keinu egitea, hitz egiten ari denari begiratzea...)

***Zenbait ideia  
faltsuren argibidea***

Ondoko argibideek ikasgelan ikusmen-urritasuna duen haurren bat duen irakasleak normalean planteatzen dituen galderetako batzuei erantzuten diete.

- Baliteke haurrak betaurrekorik ez izatea, hauek ez baitute beti ikusmen-urritasuna zuzentzen edo hobetzen. Errefrakzio-akatsak lente zuzentzaileak erabiliz konpon daitezke, baina, haur hauek jasaten duten ikusmen-urritasuna dela-eta, sarritan zuzenketak ez du lortzen ikusmen-maila normala eskuratzea. Bestalde, betaurreko batzuek kristal ilunak dituzte, besterik



gabe haur fotofobikoak errazago ikus ahal izan dezan.

- Liburu bat begietatik hurbil edukitzeak ez dio kalterik egiten ikusmenari eta baliteke haur batzuentzat inprimatutako karaktereak enfokatzeko modu bakarra izatea.
- Ikusmena ez da hobeto “gordetzen” ez erabiltzeagatik edo ez behartzeagatik eta, beraz, haurra ikusmena erabiltzera bultzatu behar da beti.
- Argi meheak ez dio ikusmenari kalterik egiten. Haur bat erosoago senti daiteke argiztapen baxuago batekin, adibidez, albinismo kasuetan.
- Begi bateko ikusmena galtzeak ez du esan nahi ikusmenaren %50 galtzen denik. Kaltea jasan duen begian ikusmen-galera izan arren, eta pertzepzio sakona delakoaren galera orokor bat izan arren, ez da interpretatu behar ikusmen-sistema erdiaren galera gisa.
- “Itsu” gisa erregistratutako biztanleen % 10 baino gutxiago da guztiz “itsua”. Askok oraindik ikusmen-geldikin bat dute eta, hau neurri batean oraindik baliagarria zaie; eta beste batzuek argia hautemateko gai dira.
- Ikusmen-urritasun bat izateak ez du esan nahi gainerako zentzumenak, adibidez entzumena, oso garatuta daudenik.
- Betaurrekoak edo ukimen-lenteak erabiltzeak ez du ikusmena nekarazten.
- Hurbiletik lan egiteko begiak gehiegi erabiltzeak ez du miopia sortarazten.

## ***Hezkuntza-erantzuna***

### ***Bere curriculumaren definizioa***

Ikusmen-urritasunak dituzten ikasleengan beharrezkoa da zenbait helburu eta edukin espezifikoko biltzea, planteatzen dituzten hezkuntza-premiei erantzun ahal izateko. Hiru multzotan bil daitezke:

### ***Curriculum gehigarria***

*a) Eguneroko bizitzako orientazioa, mugikortasuna eta trebetasunak*

- Ikaslea bere ohiko ingurunean autonomoki ibil dadin lortzea. Horretarako langile espezializatuen interbentzioa beharko da eta hauen lana bi etapatan garatuko da: haurra espazio itxitako orientazioan eta mugikortasunean, ohiko ingurunean joan-etorrian eta bastoiaren erabileran trebatzea.

- Familiaren lankidetzarekin, elikaduran eta higiene, garbiketa eta ordena-azturetan autonomia lortzea.
- Ondokoak bezalako iharduketa-jarraipideak adieraziz, haurrari pertsonarteko harremanak erraztea: norbaitek hitz egiten dionean begiak eta burua altxatzea, aurpegia bere solaskideari begira jartzea.

*b) Ikusmenaren entrenamendua*

- Bere ikusmen-gaitasuna hobetzea, horretarako ikusmen-esperientziak sortuz eta ikasleari bere oroimenean bil ditzan lagunduz (ikusten irakastea).

*c) Tekniken ikaskuntza eta material espezifikoaren maneiaketa*

- Anbliopia duen ikaslea, bere ikusmen-mailaren arabera, optika-aparatu desberdinen maneiaketan entrenatzea, gordetzen duen ikusmen-geldikina ahalik eta gehien aprobetxatzeko eta funtzional bilakatzeko.
- Ukimenezko bereizketan entrenatzea, Braillearen ikaskuntzaren aurreko urrats gisa, ikusmen-geldikin funtzionalik ez duten ikasleen kasuan.
- Beharrezkoa denean irakurketa eta idazketa Braille sistemaren bidez eskuratzea.
- Teknika jakin batzuk menperatzea (erliebezko mapak ezagutzea, material tifloteknikoa erabiltzea).

***Curriculumerako sarbideak***

Erabiliko dugun funtsezko estrategia da ikasgelako materialetan beharrezkoak diren egokitzapenak egitea, itsuek ikusten duten ikasleek jasotzen duten informazio berbera jaso ahal izan dezaten.

Egokitzapenak egin beharko dira materialetan eta baliabide didaktikoetan, eta Braille sistema erabili beharko da, ikusten duten ikaskideek jasotzen duten informazio berbera jaso ahal izan dezaten.

***Ingurunearen plangintza***

Zenbait faktore kontuan hartu beharko dira, adibidez:

- Argiztapen naturala eta artifizia
- Ikasleak ikasgelan duen kokaeraren mugaketa
- Objektuen kokaera
- Beren eskueran dituzten ikusmenezko seinalizazioak

***Idatzizko kodea  
eskuratu ahal  
izateko laguntzak***

Gerta daiteke laguntza dextente behar izatea mota desberdinetako zailtasunak dituelako:

- Ez da gai testuko lerroak ikusmenaren bidez jarraitzeko.
- Ez du lortzen hitz osoa ikustea bere ikusmen-eremuan arazoak dituelako.
- Karaktereen tamaina edo paper gainean duten kontrastea ez dira egokiak.
- Giroaren faktoreetako bat, adibidez argiztapena, ez da egokiena.
- Haurrak erabiltzen duen ikusmen-laguntza teknikoak murrizketak eragiten ditu bere ikusmen-eremuan, ikus ditzakeen letren kopurua gutxituz.

Ikusmen-urritasuna duen haurraren irakurketa-erritmoa, kasu gehienetan, ikusmen normala duten haurrena baino askoz ere motelagoa da, ikusmenezko informazioa prozesatzeak dakartzan arazoen ondorioz.

Funtsezkoa da haurrak prestakuntzako zenbait trebetasunetatik abiatuz idazketa-teknika on bat garatzea, eta edozein estilo-akats analizatu eta zuzentzea. Ikusmen-urritasuna duen haurrak askoz ere praktika-ordu gehiago behar ditu erraztasunez mugitzea lortzeko, eta irakaskuntza individualizatura jo behar da letren prestakuntzan teknika on bat finkatzeko. Trebetasun hauetako lehen etapa batean eskaintzen zaien ahaleginak, bere emaitzak lortuko ditu goeroago. Ikusmen-urritasuna duen haurrak, beste edozein haurrek baino askoz ere gehiago, kaligrafia argi eta ulerterraz bat garatu behar du, besteen mesederako eta, batez ere, bere mesederako.

***Inprimatutako  
materialak***

Zenbaitetan, nahikoa da inprimatutako karaktereak handitzea, ikusmen-baldintzak hobe daitezen. Hau lortzeko, nolabaiteko ikusmen-laguntza teknikoren bat erabil daiteke, edo behar hainbat handitutako testuaren fotokopia bat erabil daiteke.

Kontu handia izan behar da inprimatutako karaktereen kalitatearekin eta, batzuetan, kantitatearekin ere. Kalitatea karaktereen tamainak eta koloreak mugatzen dute, bai eta paper gainean duten kontrasteak ere.

Orrialde-markatzaileak eta testu bateko lerroak jarraitzeko erabiltzen diren erregelak oso baliagarriak izan daitezke hitz edo lerro jakin bat enfokatzeko arazoak dituzten haurrentzat. Ikusmen-urritasuna duen haur batek ikusmen normala duen beste batek baino denbora gehiago pasako du beti luzera bereko testu bat irakurtzen edo idazten eta, beraz, baliteke zenbaitetan lehenengoaren testua murriztu behar izatea horretarako dugun denborari egokitzeko. Agian hau izango da, alegia biadura,

***Ikusmen-laguntza teknikoak***

ikusmen-urritasuna duen ikasle bat eta ikusmen normala duen beste bat ikasketa-mailan ondoenbereizten dituen ezaugarria.

Ikusmen-urritasuna duten haur askok laguntzaren bat erabiltzen dute objektua handitu ahal izateko. Ondokoak izan daitezke: lente teleskopikoak dituzten betaurrekoak, teleskopio eramangarriak, binokularrak, lupa finkoak edo eramangarriak, argidun lupak, telebistako zirkuitu itxiak,...

## **Adimen-urritasuna duten ikasleak**

***Ezaugarri orokorrak***

***Ikuskera-aldaketa***

Adimen-urritasunaren ikuskera aldatu egin da azken urteetan: lehen adimen-urritasuna defizit biologikoak edo intelektualak dituenek bere ikaskuntza-gaitasuna mugaturik duen subjektuari berari loturik ulertzen zen; orain, ordea, subjektu hori garatzen den testuinguruaren garrantzia nabarmentzen da bere zailtasun gehienak azaltzen dituen elementu gisa.

Adimen-urritasuna pertsona baten ezaugarri iraunkortzat hartzen zuen nozioa aldatu egin da, egin diren ikerketetan lortu diren datuen ondorioz. Datu horietan ikus daitekeenez, beren eskolatzean erdi-mailako adimen-urrikotzat hartutako meskamutil asko ez dira halakotzat hartuak izan eskola aurreko eta eskola ondorengo etapetan. Adimen-urritasuna ez da norbanakoaren ezaugarri absolutu bat, funtzionamendu intelektual mugatua duen pertsonaren eta bere ingurunearen arteko elkarreraginaren adierazpena baizik.

***Definizioa***

“Adimen-urritasuna egungo funtzionamenduaren funtsezko mugapenei dagokie. Bere ezaugarria batezbestekoaren azpitik dagoen funtzionamendu intelektuala da, normalean ondoko egokitzapen-trebetasunen arloetako bitan edo gehiagotan beste mugapen batzuekin batera existitzen den funtzionamendu intelektuala, alegia: komunikazioa, norbere zaintza, etxeko bizitza, trebetasun sozialak, komunitatearen erabilera, norbere burua zuzentzea, osasuna eta segurtasuna, ikasketa-trebetasun funtzionalak, aisialdia, eta lana. Adimen-urritasunak 18 urte bete aurretik agertu behar du” (Amerikako Adimen-Urritasunaren Elkarteak).

Definizio honen arabera:

- Adimen-urritasuna *egungo funtzionamenduaren funtsezko mugapenei* dagokie. Adimen-urritasuna eguneroko bizitzako trebetasun jakin batzuen ikaskuntzan eta burutzapenean izaten den funtsezko zailtasun gisa definitzen da.
- Bere ezaugarria *batezbestekoaren azpitik dagoen funtzionamendu intelektual* da.
- *Egokitzapen-trebetasun funtzionalen arloetako bitan edo gehiagotan beste mugapen batzuekin batera* existitzen da. Egokitzapen-trebetasunetan mugapenak izan behar dira, funtzioanendu intelektual mugatu bat ez baita nahikoa adimen-urritasuna diagnostikatzeko.
- Komunikazioa, norbere zaintza, etxeko bizitza, trebetasun sozialak, komunitatearen erabilera, norbere burua zaintzea, osasuna eta segurtasuna, ikasketa-trebetasun funtzionalak, aisialdia, eta lana, bizitzan funtzioanendu egoki bat izateko funtsezko arloak dira. Sarritan, adimen-urritasuna duten pertsonak laguntza behar dute horietan.
- Ikasle-mota hau definitzen duen funtsezko ezaugarria da *ikaskuntza-prozesuetan duten zailtasuna*. Honek bere gaitasun desberdinen garapena mugatzen du: ezagutzazkoak, mugimenezkoak, afektiboak, sozialak, eta pertsonarteko harrementarako gaitasuna.

## ***Hezkuntza-erantzuna***

### ***Bere Curriculumaren definizioa Ebaluazioa***

Adimen-urritasuna duten ikasleen ebaluazioan honako hauek hartu beharko lirateke kontuan:

- Ikaslearen arlo indartsuak eta ahulak sistematikoki ebaluatzea ezagutzaren, jokabide sozioafektiboaren eta zentzumenen eta mugimenduaren funtzionamenduaren eremu funtzionaletan.
- Horrez gain, aurreko eremuetan ikaslearen aurrerapena errazten duten faktoreak eta zailtzen duten eragozpen adierazgarriak ebaluatzea, ikaslea moldatzen den testuinguru desberdinak kontuan hartuz.
- Ikaslearen aurrerapena ezagutzeko, testuinguruaren egoera zehatz batean hartutako aspektuaren bi ebaluazio egin beharko dira gutxienez. Ikaslea eta testuinguruaren oinarritzat dituen ebaluazioak, ingurunearen eta pertsonaren aldagaiek egungo exekuzioan nola elkarreragiten duten hobeto ulertzen lagunduko digu.

Adimen-urritasuna duten pertsonen ebaluazioan ondokoak zehaztu eta aztertu behar dira:

- Adimen-urritasunaren existentzia, izan daitezkeen beste ezgaitasun-baldintza batzuen aurrean.
- Aspektu psikologikotan, emozionaletan, fisikotan eta osasun-aspektutan izan daitezkeen potentzialtasunak eta mugapenak.
- Subjektuaren ohiko inguruneen ezaugarriak, bere garapena errazten edo eragozten dutenak.

### ***Helburuak eta edukinak***

Proposatzen diren helburuak eta edukinak *ikaslearen adin kronologikoari egokitu behar zaizkio*, eta hau moldatzen den giro desberdinetan aktiboki parte hartzera bultzatu behar dute. Horretarako, bere ikaskuntzek *oso adierazgarriak eta funtzionalak* izan behar dute.

Zenbaitetan, Hautzaroari dagozkion autonomiako eta norbere zaintzako helburuak sartu beharko dira; batez ere, Lehen-mailako Hezkuntzako lehen zikloan eskolatutako ikasleen kasuan.

- *Funtzionaltasun handiagoa duten helburuei eta edukinei lehentasuna ematea*

-Egoera-mota desberdinetan komunikatzea eta beste curriculum-edukin batzuk eskuratzea ahalbidetuko duen hizkuntza funtzional bat garatzea. Aldi berean, komunikazio-gaitasunak gehitzeak egokitzapen sozialeko prozesuak ahalbidetzen ditu, norberaren jokabide-arautzaile gisa jokatzen duelako, horrekin batera ezagutza-garapenean ere lagunduz.

-Idatzizko hizkuntzan ulermen-aspektuei dagozkien helburuak eta edukinak kontuan hartzea, irakurketa-prozesuan eragin nabarmena duten aspektuei garrantzi berezia emanez.

-Matematika-arloan funtzionaltasun handiagoa duten helburuak eta edukinak lantzea, adinaren arabera eta ikasleak bizitza errealean aurkitzen dituen premien arabera (diruaren maneiaketa, benetako arazoaren ebazpena, neurrien ezagutza...).

-Pertsonarteko harremanak eta egokitzapen soziala sustatzeko helburuak eta edukinak.

-Autonomia pertsonalaren garapena ahalbidetzen duten helburuak eta edukinak, batez ere, orientatzeko, autonomoki toki batetik bestera ibiltzeko, komunitateko zerbitzuak erabiltzeko, eta higieaz, elikaduraz eta norbere zaintzaz arduratzeko gaitasunari dagozkion aspektuetan.

-Prozedurazko edukinak, etapa honetako antolamendu-ardatza izateaz gain, manipulagarriagoak direlako eta orokorragoak eta funtzionalagoak direlako.

- *Helburu edo edukin jakin batzuk lortzeko aurrikusitako denbora aldatzea edo edukin jakin batzuk lantzeko jarraitutako sekuenetzia aldatzea.* Hau gerta daiteke oinarrizko ikaskuntza instrumentalak (ahozko eta idatzizko hizkuntza eta matematika) eskuratzen saiatzean.

*Ikaskuntzak*, hauek jaso diren testuinguru eta egoeretatik desberdinak diren testuinguru eta egoeretara *orokortzea*, ikasle-mota honen ezaugarri nagusietako bat baita, hain zuzen ere, ikasitakoa beste testuinguru batzuetan aplikatu eta orokortzeko zailtasuna. Horretarako, ikaskuntzak ikasleak eskolatik kanpo erabiliko dituen bezala aurkeztu beharko dira.

**Estrategia  
metodologikoak**

Ikaskuntza-zailtasun larriak dituzten ikasleekin lan egiten denean, funtsezko helburuetako bat da *ikasleek proposatzen zaizkien ikaskuntzetan arrakasta izatea*, hauek motiba daitezen eta prozesuan inplikazio zuzena izan dezaten. Horretarako beharrezkoa izango da:

- Beren gaitasun-mailari egokitutako iharduerak planteatzea.
- Burutzapen positibo oro, txikia izan arren, indartzea, zereginen aurrean ikaslearen segurtasuna areagotuz.
- Eguneroko bizitzan erabilgarriak izango zaizkion ikaskuntzak planteatzea.
- Ikaskuntza-prozesuan zehar zuzen egindakoari eta oker egindakoari buruzko informazioa ematea.
- Irakasleen eta familiaren igurikapenak ikaslearen "benetako" aukerei egokitzea, bere gaitasunekin bat datorren exigentzia-mailari eutsiz.
- Proposatzen zaizkion zereginei dagokienez ikasleak dituen lehenespak, interesak eta gogoak ezagutzea.
- Behar duten laguntza ematea, beren ikaskuntza-estiloaren arabera, ikasleak iharduera jakin bat burutu dezan edo planteatzen zaion egoera bat ebaz dezan.

Laguntzak hiru motakoak izan daitezke: fisikoak, ahozkoak edo ikusmenezkoak. Laguntza fisikoaren helburua da, ikasle bati iharduera jakin baten burutzapenean eutsi, gidatu edo laguntzea. Laguntza-mota hau mugimen-trebetasunak eta autonomia pertsonaleko trebetasunak irakasteko erabiltzen da. Ahozko laguntzak zeregin bat burutu aurretik eta bitartean ikasleari jarraipideak ematea inplikatzeko du, egin behar duena uler dezan eta hizkuntza egin beharreko ekintzen arautzaile izan dadin. Ikusmenezko laguntzak zereginen burutzapena ikusmenezko estimulutan oinarrituz orientatzea eta erraztea ahalbidetzen du. Laguntzak arian-arian baztertu egingo dira, ikasleak zeregina ahalik eta modu independenteenean eta behar dituen gutxienezko laguntzekin burutu dezan.

*Burutzen diren ikaskuntzen orokortzea errazteko* erabili behar diren estrategietako bat da iharduerak *inbentario ekologikoak* direlakoetatik abiatuz planifikatzea. Hauetan, ikasleak moldatu beharko duen ingurune edo egoera batean beharrezkoak izango dituen trebetasun desberdinak definitzen dira. Inbentario ekologiko bat egiteko, ondoko prozesua jarraituko da:

- Ikaslearen premiaren arabera interesatzen zaigun ingurunea zehaztea (jaketxea, bainugela, sukaldea, denda, zapata-denda...)
- Ingurune bakoitza azpi-ingurunetan banatzea
- Azpi-ingurune bakoitzean garrantzitsuak diren iharduerak zehaztea
- Iharduera bakoitzerako beharrezkoak diren trebetasunak zehaztea

## ***Inbentario ekologikoa***

### **McDONALD'S BATEAN JATEKO BEHARREZKOAK DIREN TREBETASUNAK ZEHAZTEKO, INBENTARIO EKOLOGIKO BATEN ADIBIDEA**

<b>Ikaslea:</b> Mary <b>Ingurunea:</b> McDonald's jatetxea	<b>Inbentarioaren helburua:</b> <i>Mc Donald'sean jateko beharrezkoak diren trebetasunak zehaztea.</i>
<b>Ingurune hau aukeratzeko arrazoiak:</b> <ul style="list-style-type: none"><li>- bere familia jatetxe horretara joan ohi da;</li><li>- bere lagunak eta auzokideak jolasten diren parketik hurbil dago;</li><li>- McDonald'sen jateko behar diren trebetasunetako batzuk beste establezimendu batzuetan ere beharrezkoak dira</li><li>- Maryri asko gustatzen zaio era honetako jatetxetan jatea</li></ul>	
<b>Azpi-ingurunea:</b> SARRERA NAGUSIA  <i>1. iharduera:</i> McDonald'sen sartzea.  <b>Trebetasunak:</b> <ul style="list-style-type: none"><li>- Ate egokia aurkitzea.</li><li>- Sarrerako atea bultzatzea.</li><li>- Sarrera zeharkatzea</li></ul> <i>2. iharduera:</i> Salmahaia aurkitzea  <b>Trebetasunak</b> <ul style="list-style-type: none"><li>- Ikusmenarekin salmahaiaren zona aurkitzea</li><li>- Iladan zain egotea</li></ul>	<b>Azpi-ingurunea:</b> SALMAHAIA  <i>1. iharduera:</i> Eskatuko duen platera erabakitzea.  <b>Trebetasunak</b> <ul style="list-style-type: none"><li>- Menua aurkitzea</li><li>- Menua irakurtzea</li><li>- Plater nagusia aukeratzeko</li><li>- Plater osagarri bat aukeratzeko</li><li>- Edari bat aukeratzeko</li></ul>

(Lou Brown: "Criterios de Funcionalidad" lanetik hartua)

# **Autismoa edo garatzeko beste nahaste orokor batzuk dituzten ikasleak**

## ***Ezaugarri orokorrak***

Autismoaren, garatzeko nahaste orokorren barruko sindrometzat hartua denaren, ezaugarri nagusia da pertsonaren aspektu afektiboen, emozionalen eta ezagutzazko aspektuen garapenean eragina duten aldi bereko alterazioen presentzia. Ez da arlo ebolutibo hauen garapenak jarraipide normalarekiko jasaten duen atzerapen bat; hauen eboluzioan garapenaren lehen uneetatik eragin sakona duten alterazioak dira.



Autismoa edo garatzeko beste nahaste orokor batzuk dituzten haurren ezaugarriak ondokoak dira:

- Narriadura kualitatibo bat jasaten dute elkarreragin sozialaren, komunikazioaren eta hizkuntzaren garapenean.
- Ezagutza-defizitak dituzte, eta hauek eragina dute beren irudimen-gaitasunean eta mundu sozialaren ulermenean.
- Funtzionamendu zorrotza, malgutasunik gabea eta estereotipatua dute.
- Espezifikoki autismoari ez dagozkion beste arazo batzuk izan ditzakete, besteak beste, hiperaktibitatea, haserraldiak, etab.

Lehen-mailako Etapari dagokion adinean, Autismoa edo Garatzeko beste Nahaste Larriren bat duten ikasleen ezaugarri bat da komunikatzeko trebetasunean jasaten duten narriadura kualitatiboa. Besteekiko **komunikazio-defizita** eta hizkuntzaren erabilera dira nahaste honen ezaugarri nagusietako batzuk.

- Sarritan alterazio larriak dituzte ahozkoak ez diren komunikazio-trebetasunetan, eta hauek oinarrizkoak dira geroago hizkuntza garatzeko. Nabarmenak dira aurrez aurreko ikusmen-kontaktua ezartzeko eta mantentzeko, aurpegiko keinuen bitartez adierazteko, eta elkarreragin sozialak hasi eta modulatzeko zailtasunak.
- Hizkuntzak, halakorik badagoenean, egitura gramatikal heldu gabea du, bai eta ekolalia, izenorde-alderaznketa, eta hitz abstraktuak erabiltzeko zailtasuna ere; eta horrekin guztiarekin batera, adierazteko hizkuntzaren doinuera berezi bat erabiltzen dute.
- Hizkuntzari dagokionez ageri dituzten arazoak, sinboloak eta zeinuak erabiltzeko ezgaitasun orokorrago baten aspektu partzial bat bakarrik dira. Ezgaitasun hori kodetzean duten defizitari dagokio.
- Hizkuntzak eta ezagutza-trebetasunek, nahaste hau dagoenean hasieratik mugaturik daudenek, ikaslearen egokitzapen sozialaren maila, ezagutza-garapena eta munduaren ulermena zehazten dute. Munduaren ulermena kasu hauetan oso mugatua eta berezia izan ohi da.

**Elkarreragin sozialari** dagokionez zailtasun handiak dituzte pertsonarteko harremanak ezartzeko, pertsonenganako interesa erakusteko eta horiekin elkarreraginean hasteko. Adin hauetan kontaktu fisikoarekiko eta afektuarekiko axolagabetasun edo higuin-adierazpenak, besarkatzeko gaitasun-eza eta ikusmenezko kontaktu eta aurpegiko erantzun-falta izaten dituzte.

Ez dituzte besteak sentimenduak, penetsamenduak, gurariak, asmoak, etab. dituzten pertsonatzat hartzen. Egoera mentalak egozteko gaitasun honi “adimenaren teoria” deitu zaio; eta, honen arabera, pertsona batek besteengan egoera mentalak erabaki ditzake eta, geroago, pertsona horien jokabidea azaltzeko erabil ditzake.

**Irudimen-gaitasunaren** narriadurak fantasiarik edo jolas sinbolikorik ez izatea dakar berekin; hau agian existituko da baina edukin pobrea eta errepikakorra izango du. Beste ikasleekin jolastea edo iharduerak elkarrekin egitea ez zaie ia interesatzen; eta beren interesen, ihardueren eta abarren errepertorioa oso mugatua da. Interes-murrizketa hau ingurune aldaketa txikien aurrean izaten dituzten erreakzioen bidez adierazten dute. Sarritan gehiegizko lotura izaten dute objektu edo egoera jakin batzuekin eta, ondorioz, jokabide erritualista edo malgutasunik gabea izaten dute ingurunearen aurrean. Jokabide erritualetan eskuen mugimendua, balantzak, eta abar bezalako jokabide erritualetan egitea inplika dezake.

Ezagutza-trebetasunen garapenean ere anomaliak izan ditzakete. Sarritan gaitasun intelektuala kaltetuta dago; beren errendimendua okerragoa da bereziki pentsamendu sinbolikoa edo abstraktoa behar duten zereginetan. Manipulazio, pertzepzio, espazio-ikusmen, edo batbateko oroimen-trebetasunetan oinarritzen diren zereginak, oro har, emaitza hobekin burutzen dituzte.

### ***Hezkuntza-premia bereziak***

Autismoa duten ikasleen oinarrizko premiak beren adineko edoizen haurrek dituenak dira. Guztiek behar dute afketua, arreta pertsonala, jolas-espazioak, aisiarako espazioak, nolabaiteko aktibitate-mailari eustea, etab.

Gainera, premia berezi jakin batzuk dituzte eta zenbait egokitzapen behar dituzte beren ikaskuntza eta harreman soziala sustatzeko. Hezkuntza-premiak batez ere ondokoetan oinarritzen dira:

- Komunikazio-trebetasunen eta estrategien garapena.
- Elkarrekin sozialaren garapena.
- Ezagutza-trebetasunen garapena: pertzepzioa, arreta, oroimena, imitazioa, irudimena eta jolas sinbolikoa.
- Autonomi trebetasunen eta arazoaren ebazpenen garapena.
- Zentzumenezko eta pertzepziozko premiak. Ikaskuntza-zailtasun asko eta jokabide problematiko asko pertzepzio-desordenen edo zentzumenezko informazio-lanketaren desordenen menpe daude. Arazo hauen eragina nabarmena da hizkuntza garatzean eta, objektuen erabilera funtzionala

lortzeko, bai eta bere ingurunea planifikatu eta organizatu ahal izateko ere, motrizitate fin egoki bat garatzean.

- Imitazioaren arloan dituen premiak.
- Dinamikaren arloan dituen premiak. Motrizitate lodia eta motrizitate fina.
- Autonomi eta gizarteratze azturetan dituzten premiak.

## ***Hezkuntza-erantzuna***

### ***Curriculumaren plangintza***

Autismoa edo beste nahaste orokor bat duten ikasleen curriculumaren plangintza egiterakoan, ondoko irizpideak hartu behar dira kontuan:

- Ikaslearen hezkuntza-premia berezietatik abiatu behar da, *Komunikazio-trebetasunen irakaskuntza eta ikaskuntzari, alegia ulermenerako eta elkarreragin sozialerako estrategiak, pertzepzioaren garapena, arreta, oroimena, imitazioa, irudimena, jolas sinbolikoa, etab., eta autonomi trebetasunen eta eguneroko bizitzako arazoan ebazpenen irakaskuntza eta ikaskuntzari lehentasuna emanez.*
- Bere esparru ebolutiboaren barnean dauden ikaskuntzak irakatsi behar dira ikasleak dituen gaitasunen arabera, trebetasunak garatzeko hauek aprobetxatuz.
- Ahalik eta autonomia handienarekin eta beren adin kronologikoa duten pertsonekin elkarreragina izateko aukera gutxien mugatuko dien ingurunean, HPBak dituzten pertsonen bizitzaren antzekoa izaten lagunduko dieten trebetasunen irakaskuntza planifikatu behar da.
- Trebetasun funtzionalak irakatsi behar dira, hau da, independenteki, beren adinaren arabera eta ahalik eta gutxien mugaturik bizitzeko behar direnak.
- Irakaskuntzak naturalki gertatzen diren gertakizunak eta beren ingurune naturalak aprobetxatzen jakin behar du, horrek ikaskuntza orokortzen laguntzen baitu eta irakasten diren trebetasunen funtzionaltasuna ziurtatzen baitu.
- Ikaskuntza-egoerek oso egituratuta egon behar dute, ikasleak gertatuko dena ulertzeko eta aurreratzeko gai izan dadin. Ihardueren antolamendua, estimuluen egituraketa eta ingurunearen erantzunak ezarri behar dira, horrek ordea ez du derrigorrez zorrotasuna inplikatu behar, ez eta ikaslea beti modu jakin batean jokatzera behartzea ere.
- Komunikazioa garatzeak, hitz egin aurreko komunikaziotik beste ahozko komunikazio-forma batzuetarako jarraipen bat inplikatu du. Hau da, hitz egin aurreko komunikazioa beharrezkoa da ahozko komunikazio-trebetasunak garatzeko. Zenbait kasutan, gainera, autismoa duten ikasle batzuek komunikatzeko duten modu bakarra da. Beraz, ahozkoak ez diren komunikazio-estrategiak irakatsi behar dira: keinuak,

### ***Komunikazioaren eta hizkuntzaren garapenerako orientabideak***

begiradaren erabilera, zeinuak, grafikoak, marrazkiak, piktogramak, etab.

- Testuinguru naturalak aprobetxatu behar dira ingurunean eta ekintza gertatzen den unean subjektuaren komunikazio-elkarreraginak ahalbidetzeko. Ikasleak komunikazio-estrategia jakin batzuk ikas ditzake, baina ez du benetan ikasiko hauek erabiltzen, trebetasun hori funtzionalki erabiltzen den testuingurutan irakasten ez bazaio.
- Garrantzia eman behar zaio hizkuntzaren eta komunikazioaren erabilera funtzionalari. Garrantzitsuena da subjektuak egiturak (keinuak, hiztegia, esaldiak,...) ikasteaz gain, horiek ohiko egoeratan erabiltzea.

### ***Garapen sozialean esku hartzeko orientabideak***

- Autismoa duten ikasleek harreman sozialean dituzten zailtasunak besteen emozioak, beren egoera emozionalak eta ingurunearen giltzarri sozialak ulertu eta interpretatzeko duten zailtasunaren ondorioa dira. Beraz, sozialki moldatzen laguntzeko modurik onena da eguneroko giroetan egoera sozialen identifikazioa eta ulermena erraztea.
- Eguneroko ingurunearen giltzarri sozialak argiak eta etengabekoak izan daitezten saiatu behar gara, egin behar dituzten ihardueri, gertatu diren gertakizunei edo gertatuko direnei buruzko informazioa eman dezan.
- Testuinguru sozialean sartzea eta bertan erantzun sozial bat ematea ahalbidetuko dieten trebetasunak irakatsi behar zaizkie; aukerak egin behar dira, ekimena izan eta honen erabilera desegokia kontrolatu behar da.

### ***Ebaluazioa***

Autismoa duten ikasleen ebaluazioak ondoko galderei erantzuten saiatu behar du:

- Zein gaitasun-mota ditu?
- Eguneroko bizitzan ebatzi behar dituzten premiei dagokienez, zeintzuk dira beren urritasunak eta trebetasunak?
- Zein irakaskuntza-mota eta metodo dira autistak bere garapen-maila handiena lortzea eragin dezaketenak?
- Lasaitzen dituzten helduen jarrerak.
- Komunikazio-jarreraren behaketa.

Egiten den ebaluazioak ondokoei buruzko informazioa eman behar du: zentzumenei dagokienez ikasleak dituen lehenespenak, zereginekiko arreta-maila, bere hizkuntza, izan ditzakeen ezagutza sozialak, ohiko ingurunean nola moldatzen den eta erabiltzen dituen komunikazio-estrategiak.

Autismoa duten pertsonen komunikazio-trebetasunak, trebetasun sozialak eta sinbolikoak ebaluatzeko zailtasunak kontuan izanik, egokiagoa da prozedura desberdinak konbinatzen dituen ebaluazio-estrategia bat diseinatzea. Ebaluazioaren helburua komunikazio-asmoaren maila zehaztea da.

***Komunikazioaren eta hizkuntzaren garapenean esku hartzea***

Ikaskuntza-egoerek oso egituratuta egon behar dute, baina horrek ez du zorrotasuna inplikatu behar, ez eta ikaslea beti ihardutera behartzea ere. Ikaslearen jokabideei zenbait mugapen ezarri behar zaizkie eta beregandik espero dena argi eta garbi ikustarazi behar zaio. Estimuluak egituratu behar dira eta nolabait erantzunak ere egituratu egin behar dira, jokabide zuzena har dezaten kontrolatuz.

- Eboluzio-esparru baten barruan irakatsi behar da, hau da, ikasleak dituen gaitasunen arabera. Egin beharreko lanaren plangintzak etekina atera behar du gaitasun horietatik eta aprobeztatu egin behar ditu trebetasunak garatzeko.
- Irakaskuntzak naturalki gertatzen diren gertakizunetan eta ingurune naturaletan oinarritu behar du, horrek ikaskuntzaren orokortze handiago bat lortzen laguntzen baitu eta irakatsitako trebetasunen funtzionaltasuna ziurtatzen ere laguntzen baitu.
- Berehalako erabilgarritasuna duten eta geroago ere erabilgarriak izango zaizkien trebetasunak irakatsiko dira.
- Autismoa duten ikasleek beren harreman sozialetan dituzten zailtasunak giltzarri sozialak identifikatzeko eta ulertzeko dituzten zailtasunen ondorio direla kontuan hartuz, sozialki moldatzen laguntzeko modurik onena da horien identifikazioa eta ulermena erraztea. Horretarako ondoren adierazi bezala esku har daiteke: eguneroko inguruneetan giltzarri sozial horien identifikazioa erraztuz. Beren ohiko ingurune sozialaren giltzarri sozialak ahalik eta argienak, finkoenak eta iraunkorrenak izatea lortu behar da. Ingurune sozialaren aldetik iharduera desberdinak egin behar dira ingurune fisikoaren banaketaren, ihardueren sekuentziaren eta harreman pertsonalen egituraketa hobea lortzeko.
- Testuinguru sozial batean sartzeko, erantzun sozial bat emateko, ekimena izateko, eta norbere gorputzaren edo objektuen, eta jokabide disruptiboen, erabilera desegokia kontrolatzeko trebetasunak irakasten saiatu behar dugu.
- Helburuen aukeraketak irizpide ebolutibo eta funtzional batean oinarritu behar du. Komunikazioaren garapenak hitz egin aurreko komunikaziotik ahozko-komunikaziorako jarraipen bat inplikatu du. Hau da, hitz egin aurreko

komunikazioa beharrezkoa da geroago ahozko komunikazio-trebetasunak garatzeko.

- Testuinguru naturalak diseinatu behar dira irakaskuntza inzidentalaren bitartez subjektuaren komunikazio-elkarreraginak ahalbidetzeko. Irakaskuntza-mota hori hizkuntzaren irakaskuntzaren planteamendu naturalago batean datza; bertan, komunikazioaren ekimena ikaslearen eskuetan uzten da, eta irakasleak haurren asmoa aprobetxatzen du horren burutzapena hobetzeko. Ikasleak komunikazio-egitura zehatzak ikas ditzake, baina ez du benetan horiek erabiltzen ikasiko, trebetasun hori funtzionalki erabiltzen den testuingurutan irakasten ez bazaio.
- Garrantzia eman behar zaio hikuntzaren eta komunikazioaren erabilera funtzionalari. Hau da, garrantzitsuena ez da subjektuak egiturak ikastea (keinuak, hiztegia edo gramatika), baizik eta funtzio anitzetarako keinuen edo hizkuntzaren bat-bateko erabilera.
- Jokabide-arazoen tratamendua komunikazio-trebetasunen irakaskuntza-programan sartu behar da.

## Mugimen-defizita duten ikasleak

### *Ezaugarri orokorrak*

Mugimen-urritasuna duen ikaslea, sistemaren batean (osteo-artikularra, muskularra edo nerbiosoa) funtzionamendu-anomalia baten ondorioz, modu iraunkorren edo aldi batez mugimen-aparatuaren alterazio bat jasaten duena da; eta honek bere adineko ikasleek egin dezaketen ihardueraren bat mugatu egiten dio maila desberdinetan. Kaltetutako sistemaren arabera, mugimen-urritasunak ezaugarri jakin batzuk izango ditu. Eskolan gehien agertzen direnei buruz hitz egingo dugu, anomalia horiek jasaten dituzten ikasleen ezaugarri orokorrak zehaztuz.

**Garun-Paralisiaren** definizioa ondokoa da: *"Jarreraren eta mugimenduaren desordena iraunkorra eta ez aldagaitza, bere garapena eta hazkundera erabatekoa izan aurretik garunak jasanako lesio baten ondorioz sortua"*. (International Society of Cerebral Paralysis). Lesioa zein alditan gertatu den kontuan hartuz, sortzen diren alterazioek eragin desberdina izango dute haurren garapen orokorrean. Mugimenari dagokionez, garun-paralisiaren ondorioak ondokoak izango dira:

- Jarreraren kontrolari eusteko, borondatezko mugimendu koordinatuak egiteko eta orekari eusteko zailtasunak.
- Oso zaila edo ezinezkoa egiten zaie motrizitate fineko iharduerak egiteko beren mugimenduak eta beren jarrera kontrolatzea.
- Garun-paralisia duten pertsona batzuk ez dira erlaxazio muskularra lortzeko gai izango, ezta pausagunean ere.
- Mugimenduak erregulatzeko ezintasuna; ondorioz, hauek zabalak eta zabarrak izan ohi dira.
- Begiei dagokienez, sarritan gerta daiteke estrabismo konbergentea, eta espazio-antolamenduan ere zailtasunak agertzen dira.
- Zurgaketaren, irenketaren eta mastekatzearen garapen egokian eragina duten faktore desberdinen ondorioz, ez da izango baraileko, ezpainen edo mihiko mugimendu lodirik, eta mintzamenerako beharrezkoak diren mugimendu fin eta zehatzen geroagoko garapenak era eragina jasango du.
- Hitzaren doinuaren eta erritmoan eragina duten alterazioak dituzte harnasaren erritmoan, eta ondorioz ulertzea zail izan daiteke.
- Fonemen artikulazioan arazoak sortzen dira, hauek artikulatu gabe utziz edo ordezkaturik.

Sortzen diren alterazio desberdinak direla-eta, aldakortasun handia dago komunikazioaren eta hizkuntzaren eremuan, bi talde handi bereizten direlarik: *hitzezko garun-paralitikoak*, zailtasunak izan arren komunikatzeko mintzamena erabil dezaketenak, eta *hitzik gabeko garun-paralitikoak*, komunikatzeko mintzamena erabiltzea ezinezkoa dutenak. Gainera, mugimenaren problematikak haurraren eta bere senideen eta/edo zaintzen duten pertsonen artean ezartzen den ez-ahozko komunikazio afektiboaren garapena baldintzatuko du. Aipatutako zailtasunek atzerapena eragingo dute hizkuntzaren garapenean semantika, sintaxi eta fonologi mailan, eta honek, aldi berean, eragina izango du idatzizko kodea eskuratzean.

**Garuneko lesio entzefalikoek** ezaugarri desberdinak izango dituzte kaltetutako zonaren eta lesioa gertatzen den unearan arabera. Mugimenaren eremuan garun-paralisan izaten diren arazoan antzekoak gerta daitezke. Komunikazioaren eta hizkuntzaren eremuan, hizkuntza lantzeko arloek kalterik jasan badute, zenbait alterazio izango dira ahozko adierazpenean

(hiztegi pobrea, esaldi laburrak, artikulazio-nahasteak, nahasteak ahotsaren emisioan, objektu ezagunen izena, aditzak, edo adjektiboak gogoratzeko arazoak,...) eta ahozko ulermenean, esaldi laburrak eta ezagunak bakarrik gogoratuko direlarik. Idatzizko hizkuntzan alterazio garrantzitsuak sor daitezke irakurketan nahiz idazketan (irakurketa motela, doinuerarik eta erritmorik gabea, ahozko hizkuntzakoak baino larriagoak diren ulermen-zailtasunak, akatsak ortografia arbitrarioan...).

Mugimenaren beste alterazio batzuk ere badira (bizkarrezur bifidoa, poliomielitisa, lesio medularrak, arian-ariako distrofia muskularrak), baina eskolan sarritan agertzen ez direnez, ez ditugu hemen aztertuko.

Mugimen-urritasuna duten pertsonengan, mugimenduen kontrolik ez izateak errealitatearekiko kontaktu egokia zailduko du, norberaren ezagutza eta garapnea mugatuz eta ingurunearekiko interes-falta eraginez. Helduarekiko etengabeko menpekotasuna ere sor daiteke, eta honek sarritan pasibotasun handiko jarrera eragingo du. Bere ingurune pertsonen jarrerak bere normalizazio soziala baldintzatuko du neurri handi batean.

## ***Hezkuntza-erantzuna***

***Lehenetasuna duten aspektuak*** Bere ingurune fisiko eta sozialarekiko elkarreragina ahalbidetzeko, arreta handia jarri beharko da bere aurpegiko espresioetan, begien mugimenduetan, soinetan, ahoskatzeetan, eta borondatezko edonolako keinutan, horiei esanahia ematen ikasteko: berekin elkarreragina duen pertsonaren arreta lortu eta mantendu, gurariak, beharrak, arbuioa, esker ona, etab. adierazi...

Beraz, haiekin ditugun elkarreraginetan arreta jarri behar dugu beren begiradetan, beren poztasun edo tristura-espresioetan, etab., ia nabari ezinak eta mugatuak izan arren, edukin bat ematen saiatuz. Edukin honek arian-arian besteek ezagutzen duten benetako esanahi funtzionala izango du, eta baliagarria izango da eskurapen berrietarako oinarri gisa.

Ikasle bakoitzaren eskueran jarriko dira jolasen edukinak, objektuak, eta argazkiak edo irudiak, komunikazioaren edukina adierazteko, manipulatu, mugitu, ezagutu, izendatu edo, halakorik ezin badute, seinalatu ahal izan ditzaten. Elkarbanatutako testuingurua beharrezkoa da komunikazioaren garapenaren hasieran.

Objektuekiko elkarreragin hau errazteko beharrezkoak diren egokitzapenak egin beharko dira laguntza tekniko jakin batzuk erabiliz. Adibidez, gure ikasleak objektuak izendatu ezin baditu, eta eskuz seinalatu ezin baditu, objektuak panel batean jar



ditzakegu buru likornioarekin (kopetatik edo kokotsetik irteten den eta buruan lotzen den ziria) seinala dezan.

***Htzezko edo hitzik gabeko komunikazio-sistema bat eskuratzea***

Erritmoan, ahotsean edo artikulazioan zailtasunak izan arren, gutxi gorabehera ulergarriak diren hitzak esaten dituzten ikasleen ahozko potentziala aprobe txatu behar da.

Logopeda irakasle tutorearekin lankidetzan arituko da ahozko hizkuntza funtzionalaren garapena lortzen saiatzeko. Horretarako, ikasleak saio indibidualizatuetan ikasi duena orokortzen saiatuko dira.

Ikasleen motrizitateak kalte larriak jasan dituenean, hitz artikulatua ez den beste komunikazio-teknikaren bat irakatsiko zaie, “keinuak” edo “sinbolo grafikoak” erabiliz. Mugimena kalteturik duten ikasleek gehienbat sistema grafikoak erabiltzen dituzte, esku-keinuak egiteko zailtasunak dituztelako. Hauen bereizgarria da erabiltzen dituzten sinboloen abstrakzio-maila handiagoa edo txikiagoa eta, honek, pertsonaren ezagutzagarapenaren mailari egokitzea ahalbidetzen du.

***Ahozko eta idatzizko hizkuntzaren garapena***

Hitzezkotzat hartutako ikasleen potentziala aprobe txatu beharko da, Hikuntzaren arloko edukin desberdinen ikaskuntza errazteko, artikulazioan, erritmoan edo ahotsean akatsak badituzte ere.

Ikasleak zailtasun handiak baditu, logopedaren laguntza beharrezkoa izango da.

Mugimen-ezintasun handia duten ikasle jakin batzuek irakurtzea lor dezaten, laguntza zehatz batzuk erabili beharko dira (atrilak, orrialdeak pasatzeko eskuko, ahoko edo buruko tresnak, informazioa orrialde batetik ordenadorera pasatzeko scannerra...). Esku-manipulazioa duten ikasleek idaztea lor dezaten, arkatzari eusteko egokitzapen jakin batzuk bakarrik beharko dira. Zuzenean idaztea ezinezkoa denean, beste laguntza-mota batzuetara jo beharko da (idazmakina normalak edo elektronikoak eta ordenadorea eta bere periferikoak, xagu egokituak...). Teklatua eta ordenadorea maneiatzeko egokitzapen batzuk egin beharko dira ikaslearengan edo teklatuan bertan.

***Helburuak eta edukinak***

Mugimen-defizita duten ikasleen curriculuma definitzeko edo egokitzeko, ondokoei dagokienez duten gaitasun-maila ezagutu beharko da:

- Mugikortasuna (joan-etorriak, jarrera, manipulazioa)
- Komunikazioa
- Interesak, motibazioak eta jarrerak
- Arlo desberdinetan dituzten premiak.

Manipulazioan, joan-etorrietan eta komunikazioan dituzten zailtasunak kontuan hartuz, zenbait egokitzapen egin beharko dira helburuetan eta edukinetan. Egin beharreko aldaketak honako hauek izan daitezke:

- Helburu jakin bat lortzeko, aurrikusitako denbora aldatzea.
- Helburu zehatz batzuk ezabatzea edo sartzea.
- Beste helburu eta edukin batzuk lortzeko oinarritzotzat hartzen diren zenbait helburu eta edukini lehentasuna ematea.

### ***Ebaluazioa***

Mugimen-defizita duten ikasleen curriculuma-gaitasuna ebaluatzeko, aldez aurretik beren mugikortasunarekin eta jarrera-kontrolarekin eta beren komunikatzeko moduarekin zerikusia duten aspektuak ebaluatu beharko dira. Erabiltzeko gai diren adierazpen-modalitatearen arabera, ebaluazioa eta hezkuntza-interbentzioa planteatu beharko dira.

Komunikazioaren aspektuak ebaluatzeko, beren adierazteko gaitasuna nahiz ulertzekoa kontuan hartu beharko dira. Besteekin komunikatzeko erabiltzen duten adierazpen-modalitatea zein den ezagutu beharko da (keinuak, aurpegiko espresioak, hitzak, ahoskatzeak, seinalizazioak, ibilbide bisualak, etab.), egingo den ebaluazioa ikaslearen erantzun-motari egokitzeko eta, horrela, irakaslearekiko elkarreragina ahalbidetzeko. Horrela, adibidez, hitz idatziak ezagutzeko gaitasuna ebaluatu nahi bada, adierazpen-modalitate gisa ibilbide bisualak erabiltzeko gai den ikasle bati, kartulinetan idatzita zenbait hitz erakus dakizkioke banandurik, eskatu zaion hitzari begiratzeko esanez.

Ulermenari dagozkion aspektuen ebaluazioa bere adinari eta bere garapen-mailari dagozkien curriculumaren helburuetan oinarrituko da. (“Mugimen-defizita duten ikasleentzat egokitutako eskolaurreko eta hasierako zikloko proba pedagogikoak”. Centro Nacional de Recursos para la Educación Especial). Mintzamena oso kaltetuta duten ikasleei, adierazteko edo irakurketa eta idazketa eskuratzeko baliagarriak izango zaizkien komunikazio-sistema alternatiboak edo handitzaileak irakatsi beharko zaizkie. Aukeratzeko baliagarria izan daiteke “Manual de toma de decisiones y de evaluación para el aprendizaje y uso de los Sistemas Aumentativos de Comunicación” delakoa.

Mugikortasunaren eta jarrera-kontrolaren ebaluazioak informazioa eskainiko digu, ikaslea bere ingurunearekin harremanetan jartzea errazteko eta altzarietan, material didaktikoetan eta oztopo arkitektonikoak kentzean egin behar diren egokitzapenak ezagutzeko. Ikasleak ahalik eta autonomi

maila handiena lor dezan, ikasgelan gertatzen diren egoera desberdinetan bere jarrera-kontrola optimizatzeko behar diren baliabideak erabili beharko dira; eta klase eta materialak baliabide horiek ikaslearen eskueran egoteko moduan antolatuko dira.

Aurreko aspektuen ebaluazioari esker, ikaslea curriculumaren arlo desberdinetan ebaluatzeko egoeran, materialetan eta adierazpen-modalitatean zer egokitzapen egin behar diren ezagutuko dugu. Ebaluazio-prozesuan zehar ikasleari ematen zaizkion laguntzak eta honek erabiltzen dituen estrategiak jaso beharko dira, hauek irakasleek irakaskuntza-ikaskuntza egoeretan erabili beharko dituzten estrategiak eta egin beharko dituzten egokitzapenak orienta ditzaten.

***Baliabide materialak pertsonalak***

*eta* Hezkuntza-testuinguruari dagokionez ikasleak dituen premien arabera, sartu behar diren aldaketak edo ikasgelaren antolamenduan kontuan hartu behar diren aspektuak zehaztu beharko dira, bai eta mugimen-defizita duten ikasleen irakaskuntza eta ikaskuntza-prozesuak errazteko erabili behar diren baliabide materialen antolamenduan kontuan hartu behar diren aspektuak ere. Mugimen-defizita duten ikasleen joan-etorriak, komunikazioa, manipulazioa eta elkarreraginak errazteko beharrezkoak diren egokitzapenak egin beharko dira. Ikasle hauen ikaskuntzaren antolamenduan zenbait aspektu kontuan hartu behar dira:

- Ikasleen taldekatzea.
- Denborak eta ordutegiak.
- Esku hartzen duten profesional desberdinek egin behar duten lanaren antolamendua.

## **Gaitasun handiak dituzten ikasleak**

***Ezaugarri orokorrak***

***Kontzeptua***

Zentzu zabal batean gaitasun handiak dituzten ikasleez hitz egin dezakegu ondoko arloetako batean edo batzuetan adierazpen nabarmenak eta/edo trebetasun potentzial bat duten ikasleen talde heterogeneoaz ari garenean: trebetasun intelektual orokorra, ikasketa-gaitasun espezifikoa, pentsamendu produktiboa edo kreatiboa, lider izateko trebetasuna, ikusmen edo irudikapen-arteak eta psikomotrizitate-trebetasuna. Gaitasun handiak dituzten hurrek beren artean gainerako pertsonak bezainbeste desberdintasun dituzten arren, bi ikasle-mota oorkor sailka daitezke:

- Gaitasun ugaritan goi-mailako errendimendu intelektuala dutenak eta edozein arlotan erraz ikasten dutenak. Horrez gain, beste ezaugarri batzuk dituzte: sormen handia dute, burutzapen ugaritan orijinaltasun handia erakusten dutelarik, eta zereginetan motibazio eta dedikazio-handia dute. Ikasle-talde honetaz hitz egiteko “superdotazio” hitza erabiltzen da.
- Oso zehatzak diren arloetan trebetasun espezifikokoak erakusten dituzten ikasleak: ikasketa, matematika, mintzamen, mugimen, gizarte, arte, musika, eta sorkuntza-arloetan. Kasu honetan, aipatutako arloetako batean “talentu” jakin bat dutela esan ohi da.

Lehenengo taldearen ezaugarri garrantzitsuenak ondokoak dira:

### ***Ezaugarriak***

- Azkar ikasten dute eta gaitasun handia dute eskuratutako ezagutzak gorde eta erabiltzeko.
- Beste ikasleek baino informazio gehiago erabil dezakete eta ideiak eta kontzeptuak erraz lotzen dituzte.
- Hizkuntza ondo menperatzen dute, bai ulermenari dagokionez, bai eta adierazpenari dagokionez ere.
- Ideia abstraktuei eta konplexuei dagokienez, ulermen-maila handia dute.
- Bere adinerako oso aurreratua den hiztegia erabiltzen dute.
- Arazoak ebazteko trebetasun handia dute, eta ebazpena lortzeko estrategia ugari erabiltzen dituzte.
- Beren eskola-errendimendua ona izan ohi da, motibazio edo nortasun-arazorik... ez badago.
- Orijinalak dira adierazten dituzten ideietan eta burutzen dituzten ihardueretan.
- Ezagutza-arlo batekiko interes sakona eta grinatsua erakusten dute, eta horri buruzko informazioa lortzeko ahalegin guztiak egiten dituzte.
- Oso jakingurak eta galdetsuak izan ohi dira.
- Interesatzen zaizkien zereginetan oso setatiak dira.
- Perfekzionistak eta oso kritikoak dira bai beren buruarekin bai eta besteekin ere.
- Trebetasun sozial onak izaten dituzte eta sarritan klaseko lider-funtzioa betetzen dute.

Arlo jakin batean nabarmentzen diren ikasleen, alegia talentu espezifikokoak dituztenen, ezaugarri batzuk ondokoak dira:

- Talentu soziala: Elkarreragin sozialeko trebetasunetan nabarmentzen dira; taldearen funtzionamenduan eragin handia dute; beren adinean espero ez diren erantzukizunak beren gain hartzen dituzte.
- Talentu artistikoa: arte-adierazpeneko ideiak, metodoak eta formak konbinatzean orijinaltasun handia erakusten dute; arte plastikoetarako aparteko trebetasuna dute.

- Talentu akademikoa: Oso erritmo azkarrean ikasteko gai dira eta aparteko eskola-emaitzak lortzen dituzte eta, honen ondorioz, “superdotazioa” duten ikasleekin nahasten zaie; egitura logikoa duten eskola-edukinak oso azkar ikasten dituzte, baina deseroso sentitzen dira malguagoak diren eta hain egituratuak ez diren egoeratan, beren sormen-gaitasuna adin bereko gainerako haurrenk dutenaren antzekoa baita.
- Mintzamenerako talentua: Harrigarri nabarmentzen dira hizkuntzari lotutako trebetasun eta gaitasun intelektualetan: ulermen-gaitasuna, adierazpen-jarioa, hiztegia menperatzea, irakurketaren eta idazketaren ikaskuntza, etab.
- Matematikarako talentua: Aparteko trebetasuna dute matematika ikasteko (zenbakikuntza-sistemak, kalkuleragiketak, problemen ebazpena, etab.), baina ez dira beste arloetan nabarmentzera iristen.
- Musikarako talentua: Musika ikasteko gaitasun berezia dute, eta interes handia dute musikarekiko. Musikarako pertzepzio sakon eta fin bat dute; txiki-txikitatik kantak eta doinuak oso ondo errepika ditzakete, eta teklatu bat eskuratzen badute, alde zuzeneko ikaskuntzarik gabe doinu bat errepikatzeke gai dira.
- Mugimendurako talentua: beren adinekoren artean nabarmentzen dira beren gaitasun fisikoengatik (arintasuna, mugimendu-koordinazioa...). Beren trebetasun bereziak kirolen bat edo dantza egiten dutenengan nabari daitezke.

## ***Hezkuntza-erantzuna***

***Identifikazioa edo antzematea*** Gaitasun handiak dituzten ikasleak oso desberdinak dira beren artean eta, beraz, hezkuntza-estrategia desberdinak behar dituzte, beren ezaugarrien eta hezkuntza-premien arabera. Okerrekoa litzateke gaitasun handiak dituzten ikasle guztiak curriculumeko arlo guztietan nabarmenduko direla pentsatzea eta proposatzen zaizkien zeregin guztietan interes eta motibazio handia erakutsiko dutela pentsatzea.

Hasierako ebaluazio-prozesuetan lortutako informaziotik, ikasleek ikasgelan egiten dituzten lanen analisitik eta beren jokabidearen behaketatik, non lehenago aipatutako ezaugarrietako batzuk ager baitaitezke, abiatuz, taldean nabarmentzen diren eta ziurraski hezkuntza-arreta berezia beharko duten ikasleak identifikatzera irits gaitetzke.

***HPBen definizioa*** Gaitasun handiak dituen ikaslea identifikatu ondoren, hurrengo urratsa beren hezkuntza-premiak zeintzuk diren zehaztea izango da, hezkuntza-erantzunak premia horiei zein mailatan moldatzen zaizkien aztertuz, ikasgelaren programazioan beharrezkoak diren egokitzapenak eta aldaketak egiteko.

Bere hezkuntza-premiak zeintzuk diren zehaztu ahal izateko, honako hauek bezalako aspektu desberdinak aztertu beharko dira: bere curriculumaren gaitasun-maila, bere ikaskuntza-estiloa, bere gaitasun eta trebetasun bereziak, interesatzen zaizkion arloak, bere autokontzeptua eta besteekiko dituen harreman-motak.

***Esku-hartzeko modalitateak***

Gaitasun handiak dituzten ikasleei erantzuteko estrategia orokor desberdinak erabili dira: hezkuntza-mailak bizkortu edo aurreratzea, curriculumaren gaitasunen eta egokitzapenen araberako taldekatzea.

Integratzaileenak diren strategiak erabiltzen saiatu behar da, adibidez, curriculumaren egokitzapenak, arazo emozionalak edo egokitzapen sozialari dagozkion arazoak saihesteko. Kasu bakoitzean estrategia egokiena zein den erabakitzeko, ezagutza-aspektuez gain, aspektu sozioafektiboak, nortasunezkoak, heldutasunezkoak, etab... ere baloratu behar dira. Inolaz ere ez da komeni zentro berezietan biltzea, honek ikasleengan eragin bereiztailea baitu.

Gaitasun handiko ikasleengan egokitu daitezkeen curriculum-elementuak beste ikasleei egokitzen zaizkien berberak dira. Beraz, egokitzapenak edo aldaketak honako hauetan egin ahal izango dira:

***Curriculumaren egokitzapenak***

- Zer irakatsi: helburuak eta edukinak.
- Nola irakatsi: estrategia metodologikoak.
- Zer eta nola ebaluatu.

***Zer irakatsi***

Edukinei dagokienez, har daitezkeen neurriak dira hauek handitzea (handitze bertikala) edo beren artean lotura konplexuagoak ezartzen eta sakontzen saiatzea (handitze horizontala). Ikasle hauekin lan egiteko estrategia baliagarrienetako bat da taldearen programa-edukinak hedadura handiagoz garatzea, aspektu jakin batzuk sakontasun handiagoz aztertuz edo curriculumeko beste arlo batzuekin lotuz. Zenbaitetan, ikasle batekin bere interesari erantzuten dioten baina taldeko programa-edukinekin ia loturarik ez duten edukin jakin batzuk landu daitezke.

***Nola irakatsi***

Hezkuntzaren esku-hartzeak zuzenean edukinak irakasteaz baino gehiago, ikasleen lana orientatzeaz arduratu behar du, "ikasten ikasten" lagunduko dieten strategiak eskuratzea erraztuz. Ikasle hauentzako metodo egokienak dira lan autonomoa, pentsatzen ikasteko trebetasunak menperatzea, disziplina bakoitzaren berezko metodoak arian-arian menperatzea, etab. sustatzen dituztenak. Ikasle hauek bereziki egokiak dira programa indibidualizatuekin lan egiteko: ikaskuntza-proiektuak eta kontratuak, ikasketa independentea, berdinen arteko tutoretza, etab. Idatzizko adierazpenak funtsezkoa izaten jarraitzen duen arren, beren lanak formato desberdinetan aurkeztera bultzatu

behar zaie: adibidez, eraikuntzak, erakustaldiak, elkarrizketak, grabaketak, artikulatuak, antzezpenak, etab.

## Ingurune kaltetu bati edo egiturarik gabeko ingurune bati lotutako Hezkuntza-Premia Bereziak dituzten ikasleak

### *Ezaugarri orokorrak*

Ingurune kaltetu batean edo egiturarik gabeko ingurune batean nahiz zailtasun sozialak dituen ingurune batean bizi diren ikasleek eskolan hezkuntza-premia bereziak izan ditzakete zenbait arrazoiren ondorioz. Alde batetik, kultura jakin batekoak izateak, marjinalitate edo poberezi kultura batekoak, hau da, eskolan nagusi den kultura estandarrekoak ez bezalako azturak, ohiturak, baloreak, elkarreragin sozialeko jarraipideak, etab... izateak, hezkuntza-premia bereziak sortarazi ditzake. Bestalde, egoera jakin batzuetan gerta daiteke inguruneak beren premiei estimulurik edo erantzun egokirik ez eskaintzea, horrela beren garapen pertsonala oztopatuz edo zailduz (haur abandonatuak, tratu txarrak, droga-menpekotasunarekin harremanak, egoera sozial patologikoak...).

Dena den, hezkuntza-premia bereziak erlatiboak eta aldi batekoak dira. Eskolan ematen zaien hezkuntza-erantzunaren arabera, premien berezitasun-maila handiagoa edo txikiagoa izango da, zeren eta planteatzen diren zailtasunak ez baitaude soilik subjektuarengan, baizik eta ingurunearen eta subjektuaren arteko elkarreraginean; eta ingurune elementu bat eskola da. Ikastetxe batek bertako kulturen, estiloen azturen, interesen, eta abarren aniztasuna jasotzen duen hezkuntza eta curriculum-proiektu bat duen neurrian, eta ikasgelaren programazioa taldeari egokituta dagoen neurrian, premia hauek ez dira bereziak izango, hezkuntza-premiak izango dira soilik, beste ikasleen kasuan bezala.

### *Hezkuntza-erantzuna*

#### *Ebaluazioa*

Inguruneari lotutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen **ebaluazioan** garrantzitsua da testuinguruaren ebaluazioa egitea; horretarako, honako hauei lotutako aspektuak kontuan hartuz:

- beren azturak, ohiturak eta elkarreragin-jarraipideak zeintzuk diren

- beren ingurunean gehien garatzen diren aspektuak edo gaitasunak zeintzuk diren
- beren ingurunean garrantzi handiena zeri ematen zaion
- beren premiak zeintzuk diren
- beren interesak zeintzuk diren
- ikasgelako ikaskideen artean zer elkarreragin izaten diren
- Irakaslearekiko zer elkarreragin izaten diren

Interesgarria izango litzateke anekdotak biltzea, ikasgelako behaketan oinarrituz aipatutakoak bezalako datuak jasotzeko.

Garrantzitsua da aspektu positiboak eta aurrerapausuak kontuan hartzea eta zertan hobetu daitezkeen adieraztea. Gaitasunen ebaluazio kualitatibo indartzaile bat egin beharko litzateke, hau da, beren gaitasunak adieraziz eta ez beren gaitasun-ezak.

### ***Helburuak eta edukinak***

Helburuak eta edukinak aukeratzean kontuan hartu behar dira beren ezaugarriak, premiak, interesak, igurikapenak...

Garrantzitsua da beren esperientzia eta puntu indartsuenetan, alegia gehien garatutako gaitasunetan, oinarritzea, horietatik abiatuz hurrunagoko batzuetara iristeko, irizpide horien arabera sekuentziatuz.

Beren ingurunean indartu daitezkeen gaitasun anitzak edo zenbaitetan gaitasun horien gabezia direla-eta, garrantzitsua da aukeratzen diren helburuetan era guztietako gaitasunak jasota egotea, hau da, ez dira ezagutza-gaitasunak bakarrik jaso behar; eta azken hauen kasuan, izan daitezkeen ezagutza-estilo desberdinak kontuan hartu behar dira.

Epe luzera markatutako helburuez gain, epe laburrerako helburuak ere ikustarazi behar zaizkie, ikaskuntzek beraientzat esanahi hurbila izan dezaten.

Malgutasunez jokatu behar da edukinak aukeratzean eta sekuentziatzean. Beren ikaskuntza-estiloen, beren premien eta interesen behaketak eskaintzen dizkigun datuetan oinarrituz, beharrezkoa izan daiteke edukinak sekuentziatzeko tradizionalki aurrikusitako sekuentziak aldatzea.

Lehentasuna izan behar duten aspektuetako bat hizkuntzaren aspektua da, ezagutza-gaitasun desberdinak, trebetasun sozialak, etab... lantzea ahalbidetuko duena. Gauzen esanahia negoziatu behar da bakoitzaren hizkuntzatik abiatuz hizkuntza amankomun batera iristeko. Horretarako, komunikaziorako testuinguru aberatsak, anitzak eta funtzionalak sortu beharko dira.



Prozedurazko edukinen ikaskuntzak, pentsatzen irakasteak, ikasten irakasteak, testuinguru desberdinetan iharduten irakasteak, egoera jakin batzuei aurre egiteak, eta arazoak ebazteak oinarrizko eta lehentasunezko ikaskuntzak izan behar dute ikasle-mota hauekin.

Jarrerazko edukinak, eskolak landu nahi dituen azturen, arauen eta baloreen ikaskuntzak (sarritan suposatzen da ikasleek hauek jadanik badituztela eta alde zuzeneko exigentzia gisa planteatzen dira), horiei buruzko gogoeta egin eta egokienak diren ala ez planteatzeaz gain, planifikatu, sekuentziatu eta mailakatu egin behar dira beren zailtasunaren arabera.

Lantzeko planteatzen diren edukinek, funtzionalak izateaz gain, testuinguru baten barruan egon behar dute eta esanahi osoa izan behar dute.

Oso garrantzitsua da familiei ikasle hauekin lantzeko planteatzen diren helburuen berri ematea, elkarren arteko lankidetzaren ahalik eta estuena izan dadin eta beren igurikapenak areagotu daitezen. Gainera, horrela beren seme-alaben heziketarako ezinbestekoak diren datuak eskainiko zaizkie.

### ***Estrategia metodologikoak***

- Ikasgelan giro egituratua eta atsegina eskaintzea.
- Helduen ereduak eta irakaslearen eta ikaslearen arteko harreman positiboa eskaintzea.
- Igurikapen handiei eustea.
- Ikasleen esperientzietatik abiatzea, beren adierazpenak azpibalaratu gabe, arian-arian aberasteko, zalantzan jartzeko eta ezagutza-gatazka sortzeko.
- Era guztietako gaitasunak lantzea, ikasleen aniztasunari erantzun ahal izateko.
- Kultur eta hizkuntz ezagutzak errespetatzea.
- Beren esperientzietan oinarritzea hauek landuz, eta beste batzuen eraginpean jarritz.
- Jakintzak, ezagutza-teknikak eta mekanismoak eskaintzea.
- Ikasleen eguneroko kulturarekin kontaktua izatea.
- Bat-bateko ikaskuntza, eguneroko ikaskuntza, elkarreragin-motak, etab... behatzea.
- Benetako arazoak abaztean edukin instrumentalak praktikoki erabiltzea.
- Familiek baloratzen dutena eta ematen dutena ezagutzea.
- Gehiago eman ahal izan dezaten, gehiago espero izatea.
- Lorpen txikiak baloratzea.
- Huts egitea saihesteko beharrezkoak diren laguntzekin zereginak sekuentziatzea, horrela beren autokontzeptua hobetuz.
- Huts-egiteen aurrean estrategia alternatiboak proposatzea.

- Esklusiboki zereginekin erlazionaturik ez dauden elkarreraginak bilatzea, alegia beren interesei eta kezkei lotuak daudenak bilatzea.
- Ariketak aukeratzeko eta burutzeko autonomia eta erantzukizun handiagoa ematea.
- Beren aukeretan arreta jartzea eta feedback positiboa itzultzea.
- Metodo aktiboak, talde-lanak eta lankidetzazko ikaskuntza erabiltzea.

***Beste zerbitzu batzuekiko koordinazioa***

Eskolak eman dezakeen erantzunaz gain, erantzun global bat eman behar da eta, ondorioz, handia da beste zerbitzu batzuekin lankidetzan aritzeko beharra. Zerbitzu hauek sozialak, osasun-zerbitzuak, aisialdirako zerbitzuak, kale-hezitzaileak, etab... izan daitezke, egoera bakoitzaren arabera.

Hirugarren Zatia

Hezkuntza-premia bereziak dituzten  
ikasleei zuzendutako hezkuntza-  
erantzuna

---

## **Aniztasunaren trataera hezkuntza-premia bereziei erantzuteko esparru orokor gisa**

***Curriculum-ereduak ikasle guztien ezaugarriei, HPBak dituzten ikasleenak barne, egokitzea ahalbidetzen du***

Gaurko curriculum-ereduaren ezaugarriek OCDeTan (Oinarrizko Curriculum-Diseinuetan) adierazitako hezkuntza-asmoak piskanaka zehaztea ahalbidetzen dute, honela hezkuntza-erantzuna beronen hartzaile diren ikasleen ezaugarri sozialei, taldekoei eta indibidualei egokitzeko.

Curriculumaren egokitzapena prozesu batean zehar gertatzen da, non, Oinarrizko Curriculum-Diseinua abiapuntutzat hartuta, maila desberdinetan zehazten den ikasle-talde jakin batekin egoera jakin batean egingo dena definitu arte.

***Aniztasunak HPBak dituzten ikasleak barne hartzen ditu***

Lehenengo zehaztapan-maila Oinarrizko-Curriculum-Diseinuari dagokio zeinak, bere malgutasuna dela-eta, testuinguru desberdinei egokitzea ahalbidetzen duen. Bigarren zehaztapan-maila OCD Ikastetxearen testuinguruari egokitzea da, Ikastetxearen Curriculum-Proiektuaren (ICP) bitartez. Hirugarren zehaztapan-maila ICP ziklo baten errealitate zehatzari eta ikasle-talde jakin bati egokitzea da, Zikloaren eta Ikasgelaren Programazioen Plangintzaren bitartez eta hauek, aldi berean, HPBak dituzten ikasle jakin batzuei egokituko litzaizkieke, Curriculum-Egokitzapen Indibidualduaren bitartez.

***Hezkuntza-testuinguru arrunta ikasle-talde heteroogeneoei erantzuteko pentsatuta eta diseinatuta egon behar du***

Zentzu honetan, ICP “Ikastetxearen curriculum-egokitzapena” izango litzateke, eta Zikloaren eta Ikasgelako Programazioen Plangintza, “zikloaren/ikasgelaren curriculum-egokitzapena”, honela zehaztapan-maila desberdinek helburu dituzten testuinguru desberdinei egokitzeko prozesuak direla azpimarratuz.

Aniztasunari ematen zaion erantzuna curriculum-elementu desberdinei buruzko erabakiak hartzeko prozesua hasten denetik gauzatzen da, hau da, Ikastetxearen eta Ziklo/maila/ikasgelako curriculum-a definitzen den unetik.

***Curriculum-a zenbat eta gehiago egokitu ikastetxeari eta ikasgelari, orduan eta gutxiago behar izango dira norbanakoari egindako***

Aniztasunaz ari garenean ikasle guztiaz ari gara, baita ikasteko moduan, gaitasunetan, interesetan, motibazioetan, aldez aurreko ezagupenetan, etab. desberdintasun handiak izanik, batzuetan hezkuntza-neurri arruntez erantzutea zaila den hezkuntza-premiak dituztenez ere.

Aniztasunari erantzuteko neurriek HPBak dituzten ikasleak barne hartzen dituzte, eta testuinguru arruntean integra daitezten eta

## *egokitzapenak*

parte har dezaten nahi badugu hartu behar diren lehenengo neurriak dira. Ezin izango dugu HPBak dituzten ikasleak integratu testuinguru arrunta ez badin badago talde heterogeneoei erantzuna emateko pentsatuta eta diseinatuta, ez badu malgutasun nahikorik hezkuntza-erantzuna ikasle guztien eta bakoitzaren ezaugarriari eta beharrei egokitzeko. Prozesu honetan, batzuetan beharrezkoa da, beren aparteko izaera dela-eta, neurri jakin batzuk hartzea, irakasleek normalki erabilitakoekin alderatuta desberdin samarrak direlako “berezi”tzat jotzen direnak; neurri hauek, horien hartzaile diren ikasleak hezkuntza-premia “bereziak” dituzten ikasletzat hartuak izatea dakar.

Curriculuma zenbat eta ikasle-talde jakin baten ezaugarriari gehiago egokitu, orduan eta gutxiago izango dira HPBak dituztenak. Hezkuntza-testuinguru jakin batean “berezi”tzat jotzen diren hezkuntza-premiak, talde heterogeneoei erantzuteko neurriak hartzen dituen beste testuinguru muinbakarrago batean, ez dira hala izango.

Curriculum-zehaztapenaren prozesuetan aniztasunari erantzuteak, curriculum-elementuetan nahita eta kontzienteki ikasleen ezaugarriari egokitutako hezkuntza-erantzun berezi bat ahalbidetuko duten alderdiak kontuan hartzea dakar. Honela, Ikastetxe batek bere ICP lantzeko burutu beharreko zeregin desberdinetan (etaparen helburu orokorrak kontestualizatzea; arloko helburu orokorrak egokitzea; arloetako edukinak kontestualizatzea, denboralizatzea eta egokitzea; edukinak sekuentziatzea eta antolatzea; baliabide materialak eta pertsonalak antolatzea; espazioak eta denborak antolatzea, etab.) helburu nagusi gisa Ikastetxeko ikasle guztien heterogeneitatea kontuan hartzea planteatu behar du.



*Ikasleen artean aniztasun handia duen Ikastetxeak beharrezkotzat jotzen du hau kontuan hartzea etaparen helburu orokorrak definitzen dituenean. Honela, Lehen Hezkuntzako helburu orokor honi: "Pertsonekin, egoera sozial ezagunetan, harreman orekatu eta emnakorrak finkatzea, elkartasunezko jokabide batez, sexu, gizarte-maila, sinismen, arraza edo bestelako ezaugarri indibidual edo sozialengatiko bazterkeria oro errefusatuz", honelako ñabardurak erantsi geniezaioke: "Ikasle guztiek elkarren arteko desberdintasunak (sexu, gaitasun, gizarte, kultura, etab.i dagozkionak) onartuz harremanak izan ditzaten lortzea, besteekin kolaboratuz eta beren premien arabera behar duten laguntza emanez".*

Curriculum-egokitzapen indibidualduak (CEI) ikasteko zailtasunak dituzten edo ikaskuntzarako gaitasun handiagoa duten ikasle jakin batzuentzako neurriak izango dira, horien hezkuntza-premiak betetzeko beharrezkoa izango delarik aldakuntza jakin batzuk egitea curriculum-elementu desberdinetan. Curriculum-egokitzapen indibidualdu hauen esanguratasuna ikaslea eskolatuta dagoen taldearen erreferentziazko curriculumetik zenbateraino urruntzen denaren arabera izango dira.

Oinarrizko Curriculum-Diseinuan aniztasunaren trataerarako potentzialtasuna eta hezkuntza-premia berezien erantzuna ematen dioten ezaugarri batzuk finkatu dira:

- Pertsonaren garapen osoa eragiten duten gaitasunak lantzen dira, bai alderdi kognitiboari dagokionez eta bai alderdi fisiko, afektibo, oreka pertsonal eta harremanezkoei dagokienez. Honela, curriculumak, pertsona bakoitzaren alderdi bat baino gehiago kontuan hartzean, arreta osoagoa eskaintzen dio hari. Gainera, alderdi kognitiboetan premia bereziak dituzten subjektuentzat, hain zuzen ere, curriculum paraleloak izatea saihesten du.
- Arlo desberdinen planteamendu globalizatzailerakoak eta funtzionalagoak ahalbidetzen dira autonomia pertsonala eta soziala garatzeko.
- Ikasleek ingurunean integrazio funtzionalerako oinarrizkoa denaren ikuspegitik edukin-multzoen hautaketa bat egiten da.
- Ikasleen ezaugarri ebolutiboak egokitutako antolamendu-ereduak eta irakatsi eta ikasteko prozesuak bultzatzen dira.
- Orientabide-dinamika bat bultzatzen da, tutoretzan oinarritua, Kontsultorearen laguntzaz, hasierako ebaluazio batean eta prozesuan zehar prestakuntzazko batean oinarritua, ikasleen hezkuntza-premia desberdinei curriculumaren egokitzapen indibidualizatuagoa ahalbidetzen dutenak.

# Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei erantzun ahal izateko kontuan hartu behar diren Ikastetxearen Curriculum-Proiektuko zenbait aspektu

ICP, OCD erreferentzia gisa hartuta, ikastetxearen inguruneari dagozkion ezaugarri sozio-ekonomiko-kulturaletara egokitzeko eta aldi berean HPBak dituzten ikasle jakin batzuei (balizkoak edo jadanik ezagunak) erantzun indibidualdua ematen laguntzeko curriculumaren zehaztapen-maila da.

Aniztasunaren trataera muinbakarrari heltzeko, zehaztapen-maila honetan erabakiak hartzean ondoko aspektu hauek har genitzake kontuan:

## **Helburuak edukinak**

- *Arloko helburu orokorrak egokitzean, sexu, gizarte-klase, sinismen, arraza edo bestelako ezaugarri indibidualek nahiz sozialek eragindako desberdintasunei lotutako hezkuntza-premiak kontuan hartzea.*
- *Zikloka arloko helburuen garapen-maila denboralizatzean eta esplizitatzean, etapako ikasleen ahalmenak eta ezaugarriak kontuan hartzea.*
- *Helburuak definitzen direnean ahalmen-mota desberdinak kontuan hartzen dira.*
- *Arloetako edukinak kontestualizatzean ikasleen behar anitzei nahikoa arreta eskaintzen zaie.*
- *Hiru edukin-motak (kontzeptuzkoak, prozedurazkoak eta jarrerazkoak) parekotasunez aurkitzen diren egokitzapenean.*
- *Edukinak sekuentziatzen direnean irizpide desberdinak (psikologikoak, pedagogikoak eta epistemologikoak) hartzen dira kontuan.*
- *Edukinen hautaketa, esanguratasunaren irizpideaz (horretarako beharrezkoa da alde aurreko ezagupenen maila errespetatzea) eta funtzionaltasunaren irizpideaz, ikaskuntzan sakontzeko eta ezagupenak orokortzeko zailtasun handiagoa izango duten ikasleen gizarte-integrazioa bultzatu ahal izateko.*
- *Edukinen sekuentziazioa, eta “funtsezko”tzat jotzen direnen sailkapena eta antolamendua, ikasleen prozesu eta erritmo desberdinak ahalbidetzen dituztelarik, irakasleak desberdintasun horiei gehiegi erreparatzeagatik “galdu” gabe.*



Gorreria duten ikasleak eskolatuta dauden Ikastetxe batean beharrezkoa izango da gorreriari eta pertsona gorrekiko elkarreraginik egokiena izateari dagozkien helburuak eta edukinak esplizitatzea.

**Orientabidea eta tutoretza**

- Ikastetxeko irakasleen artean koordinazioa dago irakatsi eta ikasteko prozesua diseinatu, praktikan jarri eta ebaluatzeko.
- Zikloko/mailako irakas-taldea laguntzako pertsonalarekin koordinatzeko denbora aurriztatu da.
- Irakasleen gurasoekin egiten diren bilerei eta elkarrizketa pertsonalei dagokiena eztabaidatuta eta erabakita dago.
- Ikasleak taldean integra daitezela laguntzen da eta ikasleengan partaidetzazko jarrerak sustatzen dira.
- Irakasleei beren nortasuna eratzeko laguntzen zaie, beren burua ezagutzera eta onartzera bultzatuz.
- Irakatsi eta ikasteko prozesuetan pertsonalizazioa bultzatzen da.
- Zikloan/etapan zehar ikasle bakoitzaren jarraiketa egiten da.

• **Hizkuntz trataera**

- Hizkuntzen erabilpena planteatuta, eztabaidatuta eta denen artean erabakita dago.
- Irakas-hizkuntzei, 1Hren garapen-prozesua eta 2Hren irakaskuntza/ikaskuntzari dagokiena aztertu eta erabaki da.
- Ikaskuntzako egoera desberdinetarako lengoaiak eta euskarri anitz hartzen dira kontuan, ikasleen premiei hobeto erantzutearren
- Komunikazio eta elkarreraginerako harreman-modu anitz (talde handia, talde txikia, bakarkako lana, etab.) hartzen dira kontuan.

**Metodologia**

- Ikastetxeko irakasleen artean akordio nagusi batzuk daude nola irakatsi behar denari buruz (nola irakatsi irakurtzen eta idazten, nola garatu ahozko adierazpidea, nola erakutsi ikasteko teknikak arlo desberdinetan...).
- OCDn adierazitako funtsezko printzipio psikopedagogikoak (ikasleek hasieran daukaten egoera ezagutzea ikaskuntzaren esanguratasunaren oinarri gisa, lankidetzan oinarritutako ikaskuntza, bitartekaritza, planteamendu globalizatzaileak...) errespetatu eta bultzatzeko akordioa dago.



- *Planteamendu metodologikoez, metodologia amankomuna ez, baizik eta akordio bidezko irizpideak izan behar dute, erantzunean edo elaborazio-estrategietan maila desberdinetako iharduerak diseinatzea ahalbidetzen dutenak; laguntzako giza baliabideak antolatzen eta ahalik eta hobekien erabiltzea ahalbidetzen dutenak.*



*Ikastetxean HPBak dituzten ikasleei arreta eskaini ahal izateko, ikasgelan bakarkako lanerako uneak ahalbidetzea erabakitzen da, zailtasunaren arabera sekuentziatutako iharduera desberdinak proposatuz, eta iharduera horiek ahalik eta era autonomoenean egin ahal izan daitezen saiatuz.*

- *Ikastetxeko irakasleak HBP dituzten ikasleen hezkuntza-erantzunean inplikaturik daude.*
- *Ikasle-talde batean esku hartzen duten profesional desberdinak nahikoa koordinaturik daude.*
- *Badaude irizpide garbi eta adostutakoak laguntzaren bat behar duten ikasleak zeintzuk diren zehazteko.*
- *Material didaktikoen hautaketa-irizpideak ezartzen direnean ikasleen heterogeneitatea kontuan hartzen da.*
- *Materialak ordenatu eta artxibatze sistemak erraz aurkitzea eta beharrezkoak direnean erabiltzea ahalbidetzen dute.*
- *Ikastetxean dauden baliabideak optimizatzen dira.*
- *Espazioaren antolamenduak ikasle guztiei erantzuna ematea eta ikasgelan profesional desberdinek aldi berean esku hartzea errazten du.*
- *Denboren banaketan ikasteko zailtasunak edo HPBak dituzten ikasleak kontuan hartzen dira.*
- *Espazioa, baliabide materialak, ikasleen eta irakasleen materialak ikasleek ikaskuntza autonomoa eta arduratsua egiteko moduan antolatzea, eta baita irakasleen bitartekaritza-rola bultzatzeko moduan ere, aldi berean arreta indibidualizatua eta taldearen heterogeneitatearekiko errespetua sustatuz.*
- *Ikasleen taldekatzeetan malgutasuna dago.*
- *Ikasteko zailtasunak dituzten ikasleei laguntza emateko sistema desberdinen definizioa eta antolamendua.*
- *Gurasoek ikastetxeko ihardueretan parte hartzeko aukera.*



*Ikastetxe batean har litezkeen erabakiak hauexek izango lirateke:*

*“Zikloetako irakasleen ordutegiak, hamabostean behin gutxienez, tutoreak laguntzako irakaslearekin eta irakasle kontsultorearekin koordinatu ahal izateko moduan diseinatuko dira.”*

### ***Ebaluazioa***

*Ebaluazioak aurrikusitako helburuak zenbateraino lortu diren eta ikasle guztien irakatsi eta ikasteko prozesua berbideratzeko balio du.*

- Ikasleen ikaskuntzak ebaluatzeko garaian, emaitzak subjektuaren bilakaerari lotuta hartzen dira kontuan.*
- Talde bateko ikasleak ebaluatzeko prozedura, teknika eta tresna desberdinak planteatzen dira.*
- Hasierako ebaluazio bat egiten da ikasleen abiapuntuko egoera ezagutzeko eta hasieratik ikasle guztien eta bakoitzaren premia, interes eta ahalmenei egokitutako ihardunez ekiteko.*
- Badaude irizpide eta baldintza batzuk zikloaren amaieran ikasleen promozioa erabakitzeko, eta ikasle guztientzat balio dute.*
- Badira adostutako jarraipide batzuk txostenak egiteko, bai barne-erabilerarakoak eta bai ikasleei eta hauen familiei azalpenak ematekoak.*

# Ikasgelaren programazio egokitua

*Ikasgelaren programazioa curriculumaren zehaztapen-mailan eta egokitzapenean azken urratsa da*

## Ikasgelaren programazio egokitua egiteko jarraitu beharreko prozesua

Ikastetxearen Curriculum-Proiektuak (ICP) hezkuntza-etapen eta hauek egituratzen diren zikloen plangintza eta antolamendua barne hartzen ditu. Ziklo baterako proiektua tutoreak talde/ikasgela bateko lana planifikatzeko edo programatzeko daukan berehalako erreferentzia da.

Ikasgelaren programazioa curriculumaren zehaztapen-mailan eta egokitzapenean azken urratsa da. Urrats honetan, ahalik eta modu esplizito eta funtzionalean, Zer, Nola eta Noiz irakatsi eta ebaluatu behar den zehaztu behar da, ikasle zehatz batzuk dituen ikasgela jakin baten testuinguruan.


Ikasgelako programa irakas-taldeak ikasleen ezaugarri orokorrek eta ikastetxearen testuingurua kontuan hartuta landu duen ICPn oinarritzen da.

Ziklo bateko curriculuma ikasgela/taldearen ezaugarriei egokitzeko prozesua ondoko eskema honetan ageri zaigu:





ikasleak izatea, curriculum-arlo batean edo gehiagotan taldearena baino gaitasuna altuagokoak, eta hauentzat ere beharrezkoa izango da arlo hauetan ondorengo zikloetako curriculumareferentziatzen hartzea.



**Hasierako ebaluazioaren funtzioak**

Hasierako ebaluazioaren funtzio orokorrak ondoko hauek izango lirateke:

- **Taldeko ikasleen hezkuntza-premiak zehaztea**
- **Zikloko ICPn beharrezko egokitzapenak egitea**
- **Zikloko programazioa antzemandako beharrei egokituta diseinatzea**
- **Ikasgelaren programaziorako oinarri izatea**
- **Ikasle jakin batek HPBak dituen eta CEI bat lantzea beharrezkoa ote den antzematea.**

Berriazko funtzio gisa ondoko hauek aipa genitzake:

Ikasleen ezaugarri indibidualak ezagutzea

- Aurreko zikloan edukinak zenbateraino lortu diren jakitea (garapen-zona erreal eta hurbila).
- Ikasteko estrategia pertsonalak ezagutzea.
- Ikasteko zailtasunak antzematea eta arlo desberdinetako "hutsuneak", akats sistematikoak, etab. ezagutzea.
- Taldea osatzen duten pertsonen trebetasun kognitiboak, pertsonalak eta sozialak ezagutzea.
- Taldearekin erlazionatzeko moduak eta ikasgelako elkarreragin pertsonalak ezagutzea. Kideen arteko elkarreragin-mota eta tutorearekiko harreman-mota, lanean dagoen autonomia-maila...
- Ikaskuntzan laguntzen duten elementuak aurkitzea: materialak, laguntzak, zeregin desberdinetarako denborak...
- Hasten den zikloaren plangintza taldearen alde aurreko ezagupenetan oinarritzea.
- Talde gisa definitzen duten ezaugarriak ezagutzea.
- Hezkuntza-premia bereziak antzematea eta horiei erantzuteko curriculum-erreferentzia desberdina (beste ziklo batekoa edo maila baxuagokoa) planteatzeko beharraz jabetzea. Ikasle horrentzat hasierako ebaluazio desberdin bat planifikatzea.

**Hasierako ebaluazioa egiteko prozesua** Hasierako ebaluazioa burutzeko, abiapuntua aurreko kurtsoetan (aurreko zikloan) egindakoeekin lotutako lan-proposamenak izan daitezke, zeregin honetan hilabete edo bi emanaz batezbeste. Ez da azterketarik edo froga berezirik egiten, baizik eta ikasgelako eguneroko iharduerak egindako azken zikloan oinarritzotzat edo minimotzat jotzen ziren edukinak zenbateraino ikasi diren ezagutzeko aprobeztatzen dira.

Iharduera hauek, halaber, ikasleei ezagupenak indartu edo finkatzeko eta ikaskuntzak gogoratzeko, sakontzeko, hurbiltzeko, etab. balioko dute, ikasten jarraitzeko oinarria sendotuz.

**Teknikak eta tresnak** Hasierako ebaluazio hau egiteko teknikak eta tresnak anitzak izan daitezke, ebaluaziogaiaren (zer ebaluatu nahi denaren) eta bere funtzioaren (informazioa zertarako erabili nahi denaren) arabera. Garrantzitsuena, ICPn ziklo horretarako definitutako plangintza orokorra ikasgela jakin bateko ikasle-talde zehatz baten ezaugarriei egokitzea ahalbidetu dezan da. (Ikus eraskinak).


Hasierako ebaluazio-prozesu honetako informazio osagarri bat, askotan curriculumaren ondorengo plangintzarako esanguratsua izaten dena, ondoko hauetan lor daiteke:

- Ikaslearen legezko dokumentazioa
- Ikaslearen karpeta indibiduala
- Beste tutore eta profesionalekin egindako elkarrizketak (ikus eraskinak).

### **Taldearen curriculumaren plangintza**

Curriculum talde zehatz bati egokitzeko beharrezkoa izango da zera kontuan hartzea:

- Hasierako ebaluazioan jasotako datuen eta informazioen analisisa hezkuntza-prozesuaren abiapuntua izango da.
- Hastera doan ziklorako ICPn ikastetxe-mailan aurrikusitako plangintza orokorra (zikloa bukatzen denean lortu beharreko helburuak).




Ikasgelaren programazioak egokitutako zikloko Curriculum-Proiektuan eta CEIetan bi urterako jaso den plangintza orokorra aldi laburretan zehazten dute. Beraz, ikasgelaren programazioa/k egiteko erreferentziak ondoko hauek izango lirarteke:

- Zikloko curriculum-proiektua ikasgelako taldearen ezaugarrien arabera egindako egokitzapenekin.
- Egin behar izan diren curriculum-egokitzapen individualduak.

Taldearen aniztasunak, beraz, funtsean eta nagusiki aldi eta espazio berean garatzeko lan-proiektu desberdinak kontuan hartzera behartzen gaitu.

Curriculum-gaitasunaren maila desberdinek eta ikasleen ezaugarriek landu beharko diren edukinak eta helburuak zehaztuko dituzte, eta baita ikasgelan hezkuntza-erantzuna antolatzeke modua ere. (Aldagai metodologikoak).



## **Taldearen aniztasunari erantzuteko kontuan hartu beharreko aspektuak**

### ***Edukinen antolamendua***

Arlo bakoitzari dagozkion edukinak multzotan agertzen dira Curriculumaren Garapenerako Dekretuan (CGD). Antolamendu hau ez da agertzen diren ordenan jarraitu beharreko gaien zerrenda bat, eta ez dira ikasgelaren programazioetan hala garatu beharreko unitate bananduak ere. Irakasleek programazioak lantzerakoan kontuan hartu beharreko oinarrizkoena dakarte.

Bestalde, CGDn Lehen Hezkuntzarako curriculuma arloka antolatzea erreferentzia bat da irakasleentzat, edukinak egituratzeko, hautatzeko eta sekuentziatzeko modu baliagarria, baina ez ikasleen ihardueren elkarren segidako sekuentzia zuzenean bilakatzeko.

Beraz, irakasleak planteatu beharreko arazoetako bat ikasgelan edukin desberdinak nola aurkeztuko dituen da, eta horretarako modu desberdinak edo modu jakin batzuk hauta ditzake. Adibidez, arlo desberdinetako edukinak modu desberdinetan antola daitezke:

- interesguneak
- proiektu globalizatuak
- zereginen arabera
- arloko gai-unitateak
- unitate didaktiko globalizatuak
- azalpen-metodoak
- ...

Antolamendu-mota bat edo bestea hautatzeko irizpide desberdinak egon daitezke, baina taldeko ikasle guztien ikaste-prozesuaren garapena, eta ez gehiengoarena bakarrik, berma dezaketenak lehenetsi beharko dira.

### **- *Ikasgelako antolamendua***

Antolamendu bat irakaslea ikasgelako ihardueraren ardatza den metodologiari lotuta dagoenean, taldekako eta/edo bakarkako lanaren autonomia txikiagoa da ondorioa, eta beste bide batzuk jarraitzen dituen curriculuma duten ikasleen ikaskuntzan bitartekaritza denbora egokian egiteko ahalmena murrizten du.

Ikasgelako antolamenduan hiru elementu garrantzitsu daude kontuan hartu beharrekoak: denboraren eta espazioen antolamendua, ikasleen taldekatzeak eta irakasleen antolamendua.

Elementu hauen antolamenduak malgua izan behar du, landu nahi diren edukinen, helburuen, etab. eta ikasleen ezaugarri indibidual eta kolektiboen arabera aldatu ahal izateko.



Nolabait gauzatu eta denboralizatu behar da ikasgelako iharduera. Denbora bi modu edo dimentsio desberdinetan kontsidera daiteke:

### **Denbora**

- Ikasturtean zehar, funtsezkoak eta esanguratsuak diren uneak (ikasturtearen hasiera, aldi luzeen hasiera eta amaiera, kursoaren/zikloaren bukaera...), taldearen egokitzapenari, ebaluazioari, programazioaren aldaketari, etab. dagozkien aspektuak aurrikusi behar direlarik.
- Eskola-iharduna, egunean zehar zer landuko den eta nola, banatuz.

Denboraren antolamendurako irizpide batzuk ondokoak izan daitezke:

- Konplexutasuna eta edukin-motak.
- Edukinak garatzeko beharrezkoak diren iharduerak.
- Ikasleen adina.
- Nortasuna, gaitasuna, motibazioa, etab. direla-eta, lan-erritmo desberdinak.
- Hasierako ebaluazioan edo ondokoetan antzemandako beharrak (sendotu gabeko oinarrizko ikaskuntzen finkapena).
- Ikasgelan beste irakasle batzuek esku hartzea.
- Ikasle jakin bati ikasgelatik kanpo arreta eskaintzeko beharra.

Aniztasunerako pentsatutako ikasgela batean, lan-proposamen desberdinak aldi berean garatzeak irakatsi eta ikasteko iharduera desberdinetan zeintzuk parte hartuko duten (tutorea, laguntzako irakaslea, kontsultorea), eta noiz, argi eta garbi egituratzea eskatzen du, bai irakasleek eta bai ikasleek burutu beharreko zeregina zein den, nola egin dezaketen (jarraitu beharreko prozesua, materialak, balizko estrategiak), non eta norekin, ongi jakin behar dutelarik.

Ordutegia osatzen duten denbora-moduluek ezin dute denek iraupen berbera izan, baizik eta lan-proposamenen ezaugarri eta funtzioen araberrakoak izango dira.

### **Espazioa**

Ikasgela barruko espazioa ekintza desberdinak burutzeko aukeren egitura gisa hartu behar da, eta hemen edukinekin, iharduerekin, materialekin, etab. bezala jokatu behar da.

Espazioan bere alderdi fisikoa (dimentsioak, objektuen posizioa, argia, materialak...) eta bere alderdi funtzionalak (nola erabiltzen den, nola erreakzionatzen den horren aurrean, zertarako behar den...).

Espazioaren antolamendurako irizpide batzuk ondoko hauek izan daitezke:

- Defizit-mota batzuek eragindako beharrak (mugimenezkoak, ikusmenezkoak, urritasun anitzak...), ikasleen autonomia bultzatuz eta espazio segurua sortuz.
- Edukin-motak eta horiek garatzeko iharduerak.
- Taldekatze-mota, ikasgelan sortu nahi diren elkarreraginaren araberakoa.
- Material eta baliabide arruntak (ikasgelako liburutegia, bakarkako lanerako espazioak, tailerrak,...).
- Ikasle batzuen ezaugarriei egokitutako materialak eta baliabide zehatzak edo bereziak (ordenadore pertsonala, ikusmen-urritasunetarako flexoak, mahai egokituak, aulkiak...), ikasgelako material guztien eskuragarritasuna ahalbidetzen dietenak.
- Ikaskuntza autonomo baten sustapena.
- ...

Espazioaren eta materialen antolamenduak ikasgelan lantzen diren lan-proposamenen araberakoa izan behar du, eta ikasleak taldekatzeko moduaren araberakoa. Ikasgelaren espazioa eta bertako altzariak ez dira berdin antolatuta egongo talde handian burutu beharreko iharduerak badira, proposamen amankomun batekin, edo talde txikitan banatutako lan-proiektuak badira, edo ikasleek bakarka zeregin desberdinetan badihardute. Antolamendu-eredu hauek aldi berean gara daitezke.

Beharrezkoa da ikasleei espazio desberdinak eta hauek denbora jakin batean erabiltzeko moduak zergatik eta zertarako diren azaltzea, eta baita estetikoki atseginak izatea. Ikasleak beraiek dira piskanaka material desberdin, espazio fisikoaren mantenimendu, etab.en antolamenduan erantzukizuna beren gain hartu behar dutenak.



Ikasgelan, mugimenezko urritasun larri bat duelako, gorpildun aulkia behar duen ikasleren bat badago, mahaien arteko espazioak autonomoki ibili ahal izateko adinako zabala izan behar du; gainera, komunikatzeko ordenadorea edo taula bat behar badu, material hauek bere kideak ikusi ahal izateko moduan ezarriko dira.

Ikusmenezko zailtasun larriak dituen ikasleren bat badago, karpeta indibidualek edo liburutegiko liburuek azalean letra-tamaina nahikoa handia izan dezaten kontuan hartuko da. Ikasgelako objektuen kokapena ahalik eta egonkorrena izango da, erreferentzia iraunkor batzuk izan ahal dituzan.

***Ikasleen  
taldekatzeak***

Taldeko/ikasgelako taldekatze desberdinak edo osagarriak irakasleei bitartekaritza indibidualdua eta/edo indibiduala ahalbidetzeko ardatz erabakiorrak izango dira.

Programazioan taldea/ikasgelaren taldekatze alternatiboak jasotzen ez badira, esku-hartze indibidualak eta/edo indibidualduak egiteko eta curriculum indibidualaren eta hezkuntza-premia bereziak dituen ikaslearen arteko bitartekaritza egiteko aukerak ia ezinezkoak izango dira ikasgelan aldi berean. Lan pertsonala edo talde autonomoetako oinarrizko baldintzetako bat da irakasleak ikasle jakin batekin edo talde txiki batekin zuzenkiago esku hartu ahal dezan.

Ikasleak taldekatzeko irizpide desberdinak eduki daitezke kontuan:

*- Edukinen tipologiaren arabera.*

Taldekatze-modu jakin batzuek beste batzuek baino gehiago bultzatzen dute edukin-mota desberdinak ikasten:

- Talde handia: planaren transmisioa, helburuena, plangintzako kontsentsua, zereginak edo faseak burutzeko denborak,...
- Talde txikia: bitartekaritzarako indibidualizazioa errazten du, prozedurazko edukinak lantzeko egokiak dira denen artean bilatzen laguntzen duelako, erantzukizun kolektiboak hartzen laguntzen du, desberdintasunen aurrean tolerantzia eta gatazkak konpontzera bultzatzen ditu.
- Indibiduala: norbanakoari arreta eskaintzea ahalbidetzen du (curriculum desberdina), ikaskuntza instrumentalak finkatzen edo hauetan aurrera jotzen laguntzen du (irakurritakoaren ulermena, idatzizko adierazpidea, eragiketa matematikoak, testuen azpimarraketa...).
- Talde handia: planaren transmisioa, helburuena, plangintzako kontsentsua, zereginak edo faseak burutzeko denborak,...
- Talde txikia: bitartekaritzarako indibidualizazioa errazten du, prozedurazko edukinak lantzeko egokiak dira denen artean bilatzen laguntzen duelako, erantzukizun kolektiboak hartzen laguntzen du, desberdintasunen aurrean tolerantzia eta gatazkak konpontzera bultzatzen ditu.
- Indibiduala: norbanakoari arreta eskaintzea ahalbidetzen du (curriculum desberdina), ikaskuntza instrumentalak finkatzen edo hauetan aurrera jotzen laguntzen du (irakurritakoaren ulermena, idatzizko adierazpidea, eragiketa matematikoak, testuen azpimarraketa...).

***Hezkuntza-  
elkarreraginak***

- *Ihardueren arabera:*

Ikasleen taldekatzeek aldakorrak izan behar dute (talde txikiak, bikoteak, talde handiak, bakarka) ikasgelan planteatzen diren iharduera-mota desberdinen arabera (fitxak, zereginak paperean, eztabaidak, hormirudiak egitea, proiektuak, egunkariak, ahozko azalpenak...).

Ikasgela batean kontuan hartu beharreko hezkuntza-elkarreraginak ondoko hauek dira:

- Tutorea/ikasleak
- Ikasleak/Ikasleak
- Muntadun helduak/ikasleak

• *Tutorea/ikasleak*

Ikasgelako elkarreragin pertsonal eta sozialen nolakotasunak eragin erabakiorra izango du eskolako irakatsi eta ikasteko prozesuan inplikaturako elementu askotan.

Prozesu orotako elkarreragina esku hartzen duen agente bakoitzak duen zereginaren arabera da; baina agente hauen artean berdintasunik ez dagoen eskolako eremuan, eta tradizionalki hala izan da, neurri handi batean ikasgelan irakasleari esleitzen zaion rolaren arabera da.

Irakasleak bere burua jakituria duena bailitzan ikusten badu, prozesua kontrola dezakeen bakarra dela hautemango du; ezagupenak egia osoak bailiran hartzen baditu, planteamendu eta ebazpen zehatzak eskatuko ditu... Koherenteki, paradigma honetatik, protagonistaren papera hartuko du ikasgelan, auzitan jartzen ez diren azalpen-metodoak erabiltzeko joera izango du, ihardueren burutzapena emandako eskemaren arabera da izatea eskatuko du, etab.

Aitzitik, irakasleak bere burua berekin elkarreragiten duen pertsonarengan ikaskuntza eragiten duen agentetzat hartzen badu (une jakin batean daukan gaitasun kognitiboaren eta lortzear dagoenaren arteko bitartekaritza), ikasleak badauzkan ezagupenei, hauek adierazteko estrategiei, daukan autonomia-mailari, etab. arreta eskainiko die, horietan oinarrituz irakaskuntza-sekuentzia egokia antolatu ahal izateko.

Taldean/ikasgelan, elkarreragin egokiak ondoko hauek bultzatu behar ditu:

Harremanei dagokienez, giro egokia sortzea, konfidantza, ziurtasunean eta elkarren onespenean oinarrituta.

- Ikasgelako funtzionamendu-arauak denen arteko adostasunez sortzea.
  - Ikasleek beren prozesuaren helburuak ezagutzea.
  - Laguntza indibidualduak.
  - Kideen arteko ikaskuntza.
  - Autokontzeptu eta autoestimazio egokia garatzea.
  -
- *Kideen arteko elkarreraginak*

Irakaslearen eta ikasleen arteko elkarreraginak ez dira ikasgelan izaten diren bakarrak, ez eta ikaskuntza eragin dezaketen bakarrak ere. Ikasgelan sortzen diren kideen arteko elkarreraginetan ere ikaskuntza gerta daiteke, eta horretarako posible egiten duten egoera didaktikoak planifikatu eta indartu egin behar dira.

Kideen arteko elkarreraginek egin dezaketena hauxe da:

- Ikaskuntza indartzea, elkarren artean zeregin bat burutzean ikuspuntuak kontratatatzera behartzea.
- Laguntzak irakasleek eskain dezaketena ez bezalako ikuspuntutik ematea.  
Elkarren arteko eztabaida sustatzea, ondoko hauek bultzatuz: datuen plangintza, egindako ikaskuntzena... lengoia amankomuna eta denentzat ulergarria dena bilatzeko ahalegina (bestearen egoeran jartzea).
- Rol-joko aldakorrak ahalbidetzea (taldekatzeak pertsona desberdinekin, gai bati buruz defendatzen den edo dagoen ideiarekin araberak).
- ...

Elkarreragin positibo egituratuaren forma batzuk lankidetzaren bidezko ikaskuntza eta kideen arteko tutoretza-sistemak dira.

Kasu batzuetan eskolak eskaintzen duen pertsona helduaren eredu ez da egokia den bakarra, arrazoi sozialak, etnikoak, kulturalak, entzumen-defizita, etab. direla medio.

Kasu hauetan oso positiboa izan daiteke autoestimazioaren garapenerako eskolan identifikazio-eredu erreala eta esanguratsuak diren helduek parte hartzea. Presentzia honek ezaugarri berak (etnikoak, kulturalak, zentzumenezko defizita,...) dituzten ikasleengan autoirudia indartuko du, eta sozialki onartuta dagoen talde bateko kide izatearen harrotasuna. Beste ikasleentzat, eskoan ohikoa ez bezalako beste eredu edo estilo sozial, kultural, etab. batzuk ezagutzeko aukera izango da (kuantitatiboki behintzat).

***Irakasleen  
antolamendua***

Irakaskuntzaren indibidualtze-prozesuek irakaslea/ikasgela eredu tradizionala haustea eskatzen dute, eta eskolako ordutegiko une jakin batzuetan ikasle-talde batekin elkarrekin lan egin dezaketean bi irakasle edo gehiagok parte hartzen duten ereduetara igarotzea.

Pertsona hauetako batek, laguntzako irakaslea edo kontsultorea izan daitekeena, dituzten ikasteko zailtasunengatik laguntza gehien behar duten ikasleekin lan zehatzagoa egin dezake. Ikasgela batean irakasle bat baino gehiago izatea, halaber, irakasle bakar batentzat burutzeko zailak diren zeregin batzuk egiteko lagungarria izan daiteke: ikasleen behaketa eta jarraiketa egiteko, ikasgelako funtzionamenduaren aspektu jakin batzuk ebaluatzeko, ondoren ikasle-talde horrekin lanean diharduten gainontzeko profesionalekin analisia eta balorazioa egiteko, etab.

Curriculum indibiduala edo taldekoa garatzeko tutoreaz gain beste profesional batzuen esku-hartzea beharrezkoa denean, pertsona hauen arteko koordinazioa izango da plangintzako koherentzia bermatzeko, eta horrek ziurtatuko du garapen osagarri bat, indargarria, eta planteatzen diren sekuentzietan, erabiltzen diren metodoetan, zuzeneko esku-hartzean izaten diren elkarreraginetan, ebaluaziorako irizpideetan, etab. koherentea.

Esku hartzeko irizpide hauek adostasunez erabaki behar dira, ikasgelan tutore ez diren profesional hauen partaidetzarako, onuragarria dena ahal den guztietan; eta bai esku-hartzea espazio mugatuagoan eta hain normalizatua ez denean burutu behar denean ere.

***Curriculum-  
materialak***

Curriculum-materialak irakasleei ikasgelan garatzen den irakatsi eta ikasteko prozesuan laguntzen dieten tresna edo objektuak dira. Beraz, irakasleek beren irakaskuntza burutzeko dituen laguntzak eta bitartekoak dira, eta haiek ez dute irakasleen lana bideratzen, baizik eta aurrikusitako iharduerak edo planifikatutako edukinak garatzeko duten ahalmenaren arabera aukeratzen dira.

Curriculum-materialek anitzak eta erabilera desberdinekoak izan behar dute, eta erantzun-maila desberdinak ahalbidetu, ikasle heterogeneo baten alde aurreko ezagupenetara eta ikaskuntza-estiloetara egokitu ahal izateko.

Hezkuntza-premia berezien presentziak erabilera malgua eta irekia duten materialak bilatzea eskatzen du, ahal den neurrian.

Komenigarria da materialak lan-autonomia bultzatzeko moduan aurkeztea, jarraitu beharreko prozesuaren jarraipide garbiak eta planteatutako iharduerak burutzeko laguntza ugariak emanez.

Ebaluazioa planifikatutako irakatsi eta ikasteko prozesuaren continuum-ean beste aspektu bat besterik ez da. Ebaluazioa burutzeko denbora zehatz bat har daiteke, edo lan-prozesuan zehar datuen erregistro egituratu eta sistematikoa egin, bai taldeka eta bai bakarka.

*Taldeko  
ebaluazioa  
jarraiketa*

*ikasleen  
eta*

Ikasle bakoitzak dituen beharrak jaso ahal izateko, zein neurritan lortzen diren helburuak eta ikasten edukinak, proposatutako iharduerak betetzeko dituen zailtasunak eta eman beharreko indargarri, laguntza edo lan osagarriak ezagutzea ahalbidetuko diguten tresnak behar ditugu. Erregistri sistematizatu indibidualak erabil daitezke, ikasleak berak izandako aurrerapena baloratzeko, eta kolektiboak, taldearekiko alderaketa-perfil bat lortzeko.

Ebaluazioaren funtzio nagusia, beraz, benetan egin diren ikaskuntzak planifikatutako helburuekin alderatzea da, eta alderaketa hori abipuntuzat hartuta, prozesua berbideratzea (dagozkion aldakuntzak egitea curriculuma osatzen duten elementu batean edo batzuetan) planteatutako “igurikapenak” betetzen ez direnean, edo egindako plangintzaren baliagarritasuna berrestea, eta horretan oinarrituz prozesuaren hurrengo sekuentziarekin jarraitzea.

Formalki ebaluaziorako irizpideak dei geniezaiekeen “igurikapenak” zikloko Curriculum-Proiektuan eta Curriculum-Egokitzapen Indibidualduan jasota daude eta Curriculum-Egokitzapen Indibidualduan, baldin eta balego, ikasgelaren programazioaren iturri diren dokumentuak egongo lirateke. Lortutako garapena aurrikusitakoa ote den kontrastatzeko erreferentzia dira, eta alderaketa honetan oinarrituz prozesuaren hurrengo plangintzarako hausnarketa egingo da.

Hezkuntzako esku-hartzean profesional batek baino gehiagok parte hartzen duenean, ebaluazioak nolabait inplikaturatuta egon diren pertsona guztiak hartu beharko ditu kontuan. Hauen ohar, datu-bilketa eta balorazioen adostasunetik sortuko dira behin-betiko ondorioak, aurrikusitako plana aldatzera edo bere horretan uztera eramango dutenak.

Aldakuntzek ikasgelaren programazioan izango dute eragina batez ere, bere elementu desberdinetan (espazioa, denbora, taldekatze-motak, material didaktikoak, elkarreraginak...). Talde/ikasgela bati egokitutako Zikloko Curriculum-Proiektu batean eta, hala badagokio, Curriculum-Egokitzapen Indibidualduan aurrikusitako helburuak bere horretan uzten saiatu behar dugu eta, hezkuntza-prozesu batean parte hartzen duten profesional guztien artean hausnarketa egin ondoren, aurrikusitako garapena bi ikasturtetan lortzea ezinezkotzat jotzen denean soilik aldatuko dira.

Dena den, CEIn eta Zikloko Curriculum-Proiektuan jasotako lorpen errealen eta aurrikusitakoen arteko alderaketa-azterketak ez du ikasturte bat gainditu behar.



## 1. Eranskina

---

Hasierako ebaluaziorako laguntza-  
tresnak

---

**EUSKARAREN ETA GAZTELANIAREN ARLOAN DATUAK  
SISTEMATIKOKI JASOTZEKO JARRAIPIDE OROKORRAK**

Zikloko/Kurtsoko Hasierako Ebaluazioa

- **Normalki erabiltzen diren ahozko eta idatzizko testuen zentzua jasotzen du:**
  - globalki
  - garbi adierazitako ideiak
  - ideia desberdinen artean dauden erlazioak
  - esplizitoak ez diren elementu batzuk interpretatuz (zentzu bikoitza, umorea...)
- **Ulermen-estrategiak erabiltzen ditu irakurketan sortzen zaizkion zalantzak argitzeko:**
  - blokeatu egiten da
  - irakasleari galdetzea
  - kide bati galdetzea
  - informazio osagarria bilatzea
  - hiztegi bat kontsultatzea
  - liburu desberdinak kontsultatzea
- **Testu-mota desberdinak honela irakurtzen ditu:**
  - arazoak ditu silabak, letrak, etab. dekodifikatzeko
  - ulertzeko hitzak errepikatuz
  - hitzak edo silabak alde batera utziz edo ez esanez
  - entonazioaz /entonaziorik gabe
  - erritmo mantsoz / egokiaz
- **Ahozko eta idatzizko testuak honela sortzen ditu: (aparte baloratu arazorik badago)**
  - nekez
  - ongi antolatuta
  - hiztegi egokia erabiliz
  - hiztegi urria erabiliz
- **Bere idatzizko lanetan :**
  - landutako arau ortografikoak betetzen ditu
  - nolanahi erabiltzen ditu
  - laguntzara jotzen du (hiztegia, fitxak,...)
- **Ikasgelako komunikazio-egoera desberdinetan honela hartzen du parte :**
  - aktiboki / pasiboki
  - besteen iritzia aintzakotzat hartuz
  - akordioetara iristen saiatuz
  - iritziak emanez
  - elkarbizitzaren arauak errespetatuz (txanda itxaron, entzun, ados ez egotean ez oihurik egin... )
- **Ahozko testuak (poesiak, abestiak, asmakizunak, aho-korapiloak...) honela ikasten ditu buruz:**
  - erraz / nekez
  - testuari egokitutako erritmoaz eta entonazioaz
- **Bere lan desberdinetarako, ohiko baliabidea eta informazio-iturri desberdinak (liburutegia, kontsulta-liburuak, datu-baseak,...) honela erabiltzen ditu:**
  - autonomiaz
  - prozesuan galtzen da
  - ez ditu erabiltzen
  - gutxitan erabiltzen ditu
  - laguntzaz soilik

# NATUR ETA GIZARTE-INGURUNEAREN EZAGUERAREN ARLOAN DATUAK SISTEMATIKOKI JASOTZEKO JARRAIPIDEAK

## Zikloko / Kurtsoko Hasierako Ebaluazioa

**Errealitatearen behaketak prozesu ordenatu bati jarraiki egiten ditu.**

**Behagarria denaren ezaugarriak (objektuak, paisaia, animaliak, landareak...) egoki ordenatu, sailkatu eta erregistratzen ditu.**

**Nola deskribatzen duen (objektuak, animaliak, landareak, fenomenoak...)**

ezaugarriak aipatuz.

antzekotasunak eta desberdintasunak antzemanaz.

erlazioak ezarriz eta kategorizatuz.

**Espazio-nozioen erabilera:**

oinarrizkoak (goi/behe; ezker/eskuin; barne/kanpo; hurbil/urrun,...)

puntu kardinalak dagozkienak, zera lortzeko:

- bere burua kokatzeko

- objektuak eta tokiak kokatzeko

- orientatu eta norabide baterantz ibiltzeko

**Eguneroko bizitzari lotutako denbora-nozioak (aldi berekotasuna, aurretiazkotasuna, gerokotasuna, iraupena) aplikatzen ditu.**

**Animaliak, landareak, objektuak eta fenomenoak behatzeko esperientzia sinpleak burutzen ditu:**

lana planifikatuz

behaketa eta neurketarako teknikak eta tresnak erabiliz

hipotesiak eginez

hipotesiak egiaztatuz

**Giza gorputzaren organo nagusiak identifikatu eta kokatzen ditu,**

beren funtzioekin erlazionatzen ditu

lesioak antzematen ditu (sintoma sinpleen bitartez)

zuzen jokatzeko oinarrizko ezagupenak erabiltzen ditu

**Talde-lanak honela burutzen ditu:**

plan amankomun batez

taldekideen artean zereginak banatuz

erabaki kolektiboak hartuz

**Taldeko ihardueretan nola parte hartzen duen:**

besteen ideiak aintzakotzat hartuz

jokabide-arauak aintzakotzat hartuz

erantzukizunak bere gain hartuz

elkarrizketa erabiliz gatazkak konpontzeko

**MATEMATIKAREN ARLOAN DATUAK SISTEMATIKOKI JASOTZEKO  
JARRAIPIDEAK**

**Zikloko / Kurtzoko Ebaluazioa**

**Problema sinpleak ebazten ditu:**

ebatzi beharreko problema interpretatzen du  
planteatutako galdera isolatzen du  
egin beharreko eragiketak finkatzen ditu  
eragiketak zuzen egiten ditu (zehaztasunez edo hurbilduz)  
emaitza egoki adierazten du  
zehaztasuna bilatzen duenean emaitzak egiaztatzeke kalkulagailua erabiltzen du.

**Zenbaki natural eta dezimalak irakurri, idatzi eta erabiltzen ditu:**

horiek zuzen erabiltzen ditu  
zifren balore posizionala interpretatzen du

**Kalkulu numerikoak ziurtasunez egiten ditu, prozedura edo baliabiderik egokiena hautatuz:**

arkatz eta paper bidezko algoritmoak  
kalkulagailua  
buruzko kalkulua  
tanteoa

**Zehaztasunez adierazten ditu ondoko neurri hauek:**

<u>luzera</u>	Neurri naturalak	Neurri-unitatea	Multiplak eta azpimultiplak
edukiera			
masa			
denbora			
azalera			
bolumena			

**Forma eta gorputz geometrikoak identifikatu eta deskribatzen ditu:**

figura launak eta gorputz geometrikoak bereizten ditu  
bien oinarrizko elementuak identifikatu eta ezagutzen ditu (aldeak, erpinak, angeluak, aurpegiak...)  
irizpide desberdinak erabiliz sailkatu eta izendatzen du  
forma geometrikoak eratzen ditu datu ezagunetan oinarrituz  
perimetroak eta areak kalkulaten ditu.

**Errepresentazio grafikoak eta numerikoak egin, irakurri eta interpretatzen ditu:**

informazioak egoki erregistratzen ditu  
errepresentazio desberdinak interpretatzen daki  
ulertu eta adierazi egiten ditu

**Kalkuluen aurkezpena eta soluziobideak ordenaz eta garbi adierazten ditu**

**Soluziobideak bilatzean tinkotasuna erakusten du.**

**GORPUTZ-HEZKUNTZAREN ARLOAN DATUAK SISTEMATIKOKI JASOTZEKO  
JARRAIPIDEAK**

**Zikloko / Kurtsoko Hasierako Ebaluazioa**

- **Mugimenduari lotutako gorputz-zatiez nolabait jabetzen da.**
  - **Bere gorputzaren ahalmenak eta mugak ezagutzen ditu.**
  - **Espazio hauetan orientatzen da: (nekez / laguntzaz / erraz)**
    - ezagunak
    - hurbilekoak
    - ezohiko espazioak.
  - **Bere mugimendua erritmo desberdinei egokitzen die: (gutxi / nekez / egoki...).**
- Beso eta zangoen mugimenduak harmonikoki koordinatuz ibiltzen da.**
- **Mugimenaren garapenaren uneri dagozkion oinarrizko trebetasun fisikoak dauzka, adinaren eta ingurunearen batezbesteko baloreetara hurbilduz.**
  - **Iharduera fisikoarekin zerikusia duten higiene-arauak betetzen ditu, adina kontuan harturik.**
  - **Talde-ihardueren garapenean edo talde-jokoetan parte hartzen du**
    - arauak ulertu eta betetzen ditu
    - besteak onartzen ditu
    - jokoarekin gozatzen du
    - akats txikiak gainditzen ditu

**ARTE-HEZKUNTZAREN ARLOAN DATUAK SISTEMATIKOKI  
JASOTZEKO JARRAIPIDEAK**

Zikloko / Kurtsoko Hasierako Ebaluazioa

**Ageriko ezaugarri plastiko batzuk antzematen ditu: (adinaren arabera baloratu)**

kolorea → primarioak: gorria, urdina, horia  
sekundarioak: berdea, laranja, ubela  
zuria / beltza

forma → bidimentsionala (laukia, triangelua, lauki zuzena, pentagonoa...)  
tridimentsionala (konikoak, esferikoak, zilindrikoak...)

egitura → biguna / gogorra; solidoa / likidoa; latza/leuna/zimurra...

**Errepresentazio plastikoak figuren eta formen neurrien arteko erlazioak kontuan hartuz egiten ditu.**

elementu plastikoen banaketa egokiaz  
elementu desberdinen arteko erlazioa kontuan hartu gabe

**Bere produkzioetarako material, teknika eta baliabide plastiko desberdinak erabiltzen ditu:**

ziurtasunez eta erraz  
nekez  
egoki

**Marrazkiak trazaketa kontrolatuz / nekez egiten ditu**

**Soinua eta isiltasuna bereizten ditu**

**Soinuak bereizi edo antzeman egiten ditu:**

luzeak - motzak  
fuertea - suabea

**Abesti edo doinu sinpleak abesten ditu, abestiaren erritmoa eskuaz edo perkusiozko instrumentu batez jarraituz**

**Gorputzaren eta mugimenduaren bitartez adierazten eta komunikatzen du.**

pertsonaiak imitatuz  
eguneroko ekintzak  
istorio sinpleak  
dramatizazio kolektiboetan parte hartuz.

**Bere produkzio plastiko, musikal eta dramatikoetan konfidantza dauka eta besteekin hainbanatzen ditu.**

**Bere kideen produkzioak aintzakotzat hartzen eta baloratzen ditu:**

gutxi - nolabait - kosta egiten zaio ontzat ematea - laguntzaz

## **ATZERRIKO HIZKUNTZAREN ARLOAN DATUAK SISTEMATIKOKI JASOTZEKO JARRAIPIDEAK**

### Zikloko / Kurtsoko Hasierako Ebaluazioa

- **Ahozko testu sinpleetan ideia globalak hartzen ditu, hitzez edo bestelako jokabideez (keinuak, marrazkiak, ekintzak...) erantzunez**
  - asko kostata
  - nekez
  - irakaslearen eta/edo kideen laguntzaz
  - erraz eta ziurtasunez
- **Ikasgelako komunikazio-egoera simulatuak ulertzen ditu eta bertan parte hartzen du (beren buruaz, inguruneaz, eguneroko egoerez informazioa eskatu eta ematea...)**
  - asko kostata
  - nekez
  - irakaslearen eta/edo kideen laguntzaz
  - erraz eta ziurtasunez
- **Testu labur eta soilak irakurtzen ditu (kartelak, iragarkiak, argibideak, haurrentzako istorioak) ideia globala ulertuz.**
  - asko kostata
  - nekez
  - irakaslearen eta/edo kideen laguntzaz
  - erraz eta ziurtasunez
- **Famili gaietara eta hurbilekoei buruzko testu sinple laburrak (oharrak, mezuak, galde-sortak...) komunikazio-asmoz sortzen ditu, txukun eta idatzizko kodearen oinarritzko arauak betez.**
  - asko kostata
  - nekez
  - irakaslearen eta/edo kideen laguntzaz
  - erraz eta ziurtasunez
- **Beste hizkuntzetan (1H eta 2H) garatutako ikaskuntza eta komunikazio-estrategiak erabiltzen ditu**
  - asko kostata
  - nekez
  - irakaslearen eta/edo kideen laguntzaz
  - erraz eta ziurtasunez

## 2. Eranskina

HPBak dituzten ikasleekin egin behar den lana zehazteko jarraitu behar den prozesuaren adibideak.


---



## CEIren ZEHAZTAPENA

CEI ziklo oso baterako curriculumaren plangintza orokorra da eta beraz ezin du ikasle batekin egin beharreko lan zehatza jaso eta definitu. Taldeko ikasle guztiekin, HPBak dituztenekin barne, ikasgelan egin beharreko lanaren programazio zehatza burutzeko, beharrezkoa izango da erreferentziatzat Zikloko Curriculum-Proiektua nahiz beharrezkoak izan diren CEIak hartzea.

CEI bat duen HPBdun ikasleekin curriculum zehazteko modu bat zera izan liteke, ikasgela arruntean nahiz laguntzako ikasgelan egin beharreko lana aldi laburragoetan esplizitatzea (hiruhilero, hilero...), aldi horretan lehenesten diren CEIren aspektuak jasoz. Plangintza hori ikasgela arruntean ikaslearekin aldi laburragoetan (astea edo hamabostaldia) landu beharreko proposamen didaktikoak definitzeko erreferentzietako bat izango litzateke; gainera, beharrezkoa izango da ere ikastaldearentzat diseinatutako ikasgelaren programazioa kontuan hartzea, HPBak dituzten ikasleak integra daitezen eta ikasgelako lanean ahalik eta gehien parte har dezaten. Jarraitu beharreko prozesua, beraz, hauxe izango litzateke:



## PLANGINTZARAKO TRESNAK

HIRUHILEKO LAN-PLANA			
Esperientzia-arloa edo eremua:		Denbora astero:	Ikasgela arruntean: Laguntzako ikasgelan: Beste espazioetan:
Tokia	Lehenesten diren zereginak edo edukinak	Beharrezko materialak	Irakaslea
Ikasgela arrunta			
Laguntzako ikasgela			

## HAMABOSTALDIKO LAN-PLANA

**Ikasgela arrunta**      **Arlo edo unitate didaktikoa:**

Data	Taldearentzako lan-proposamena	Ikaslearentzako proposamena <small>(Taldean, bakarka, zer-nolako laguntza emango zaion eta nork, berariazko materialak edo egokituak...)</small>

## **ADIBIDEAK**

Asteko edo hamabostaldiko ikasgelako taldeari planteatzen zaion ihardueretako bat da abiapuntua, antolamenduan, ikasleari eman dakizkiokeen laguntzetan, materialetan, etab. beharrezko aldakuntzak eginez, HPBak dituen ikasleak taldearen curriculumean ahalik eta gehien parte hartu ahal izan dezan. Adibideak Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko lehen mailan kokatzen dira.

**A KASUA:** Ikasteko arazoak dituen ikaslea. Gaztelania eta Euskararen arloan proposatutako zereginari dagokionez daukan gaitasun-maila honako hau da:

-Nahiz eta hizkuntz garapenean atzerapen bat izan (hiztegia, esaldien konplexutasuna...) ahoz nahiko egokitasunez adierazten ditu ideiak.

-Hau kode idatziaren ikaskuntzaren hasierako fase bat da. Hitz ezagunak irakurri eta idazten ditu.

Taldearentzako proposamenari dagokionez, Matematikaren arloan duen gaitasuna ondokoa da:

-20 zenbakira arte kontatzen eta kopuruak adierazten daki.

-10 baino kantitate txikiagoetan, ... baino gehiago, ... baino gutxiago eta berdin erlazioak ezartzen ditu.

-Baturazko (elkarketa gisa) eta kenketazko (murrizketa gisa) problema sinpleak ebazten ditu, objektuak manipulatu.

## HAMABOSTALDIKO LAN-PLANA

**Ikasgela arrunta**

**Arloa:** Gaztelania eta Euskara

**Unitate didaktikoa:** Ipuinen tailerra

Data	Taldearentzako lan-proposamena	Ikaslearentzako egokitzapenak <small>(Taldean, bakarka, zer-nolako laguntza emango zaion eta nork, berariazko materialak edo egokituak...)</small>
	<p><b>Narrazio bat hiru zatiak bereiziz egitea:</b></p> <p><i>-Planteamendua:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>.Pertsonaien aurkezpena</li> <li>.Ekintza denbora batean eta espazio batean kokatzea</li> <li>.Kontatzen den arazoaren edo gertaeraren planteamendua</li> </ul> <p><i>-Korapiloa:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>.Istorioko pertsonaien iharduna</li> </ul> <p><i>-Amaiera:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>.Pertsonaiek istorioari nolako irtenbidea eman dioten.</li> </ul> <p><b>Ihardueraren sekuentziarioa:</b></p> <p><i>-Istoria bat asmatzea:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>.Pertsonaia batzuk sortu edo aukeratzea</li> <li>.Argudio eragile bat bilatzea</li> <li>.Ekintza denbora eta toki jakin batean kokatzea.</li> </ul> <p><i>-Idaztea, irudikatzea eta kontatzea:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>.Ekintzak irudikatzea eta idaztea</li> <li>.Idatzitakoa berrirakurtzea, hobetu edo zuzentzeko</li> <li>.Besteei irakurtzea, kontatzea.</li> </ul>	<p>-Tutoreak irudikatutako ekintzak idatziz jasoko ditu, ikasleari ekintzak ordenatzen laguntzen dioten galderak eginez.</p> <p>-Istoria irakurri egiten zaio, gogoan edukitzen saia dadin.</p> <p>-Ikasleak istorioaren ekintza nagusiak binetetan marrazten ditu, kideei kontatzeko lagungarri izan daitezkeenak</p> <p>-Istorioren testua ikasleari idatzizko kodea irakatsi eta ikasteko oinarritzat balio dezake.</p>

## HAMABOSTALDIKO LAN-PLANA

**Ikasgela arrunta**      **Arloa: Matematika**      **Proposamen didaktikoa: Problemen ebazpena**

Data	Taldearentzako lan-proposamena	Ikaslearentzako egokitzapenak
		(Taldeen, bakarka, zer-nolako laguntza emango zaion eta nork, berariazko materialak edo egokituak...)
	<p>Ondoko problema honen ebazpena:</p> <p><i>Ikasgela bateko hogeitasei haur saskibaloiean jokatzera doaz eta bi talde egin dituzte</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Zenbat jokalaria egongo dira talde bakoitzean biek jokalaria-kopuru berbera eduki behar badute?</li> </ul> <p><i>Jokatzen hasi dira eta saskiratze bakoitzak 2 puntu balio dituela erabaki dute. A taldeak 8 saskiratze egin ditu.</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Zenbat puntu jasoko ditu?</li> <li>• B taldeak 12 puntu jaso ditu.</li> <li>• Zenbat saskiratze egin ditu?</li> </ul> <p><i>Pentsa ezazu saskiratze bakoitzak orain 3 puntu balio dituela. Aurreko aldian adina saskiratze badituzte,</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Zenbat puntu jasoko ditu talde bakoitzak?</li> <li>• Zenbat puntu lortu dituzte bien artean oraingo jokaldian?</li> </ul>	<p>Kartulinan ebakitako haurren irudiak manipulatu, bi jokalaria-talde egin ondoko plantila erabiliz eta bertan lehendabizi kartulinazko jokalaria eta gero dagokien zenbakia jarri:</p> <div style="display: flex; justify-content: space-around; align-items: flex-start; margin-top: 10px;"> <div style="text-align: center;"> <div style="border: 1px solid black; padding: 2px 10px;">A taldea</div> <div style="border: 1px solid black; width: 100px; height: 100px; margin-top: 5px;"></div> </div> <div style="text-align: center;"> <div style="border: 1px solid black; padding: 2px 10px;">B taldea</div> <div style="border: 1px solid black; width: 100px; height: 100px; margin-top: 5px;"></div> </div> </div> <ul style="list-style-type: none"> <li>• 12 jokalaria hartzeko eta jokalaria-kopuru berbera duten bi talde eratzeko adieraziko zaio.</li> <li>• Bi taldeen artean 12 jokalaria daude. Bi talde egin, A taldeak B taldeak baino jokalaria gehiago izanik.</li> <li>• A taldeak 5 jokalaria dauzka eta Bk 6, zenbat jokalaria dituzte bi taldeen artean?</li> <li>• Bi taldeen artean 14 jokalaria dituzte. A taldeak 8 jokalaria ditu; zenbat izango ditu B taldeak?</li> <li>• ...</li> </ul>

**B KASUA:** Mugimen-defizita duen ikaslea. Proposatutako zereginari dagokionez Gaztelanian eta Euskaran duen gaitasun-maila honako hau da:

- Panel Fonetiko-Silabikoa erabiliz komunikatzeko gai da.
- Ahozko mintzaira ongi ulertzen du baina ez du gaitasunik adierazpenari dagokionez.
- Ordenadorea konmutagailu baten bitartez erabiltzen du, testu sinpleak idazteko gai izanik.

Matematikaren arloan bere gaitasun-maila gainontzeko kideen antzekoa da. Mugimenari dagokionez, mahai gainean dagoen kartulina batean adierazita dauden sinboloak eskuz seinalatzeko gai da.

## HAMABOSTALDIKO LAN-PLANA

**Ikasgela arrunta**

**Arloa:** Gaztelania eta Euskara

**Unitate didaktikoa:** Ipuinen tailerra

Data	Taldearentzako lan-proposamena	Ikaslearentzako egokitzapenak
	<p><b>Narrazio bat hiru zatiak bereiziz egitea:</b></p> <p><i>-Planteamendua:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>.Pertsonaien aurkezpena</li> <li>.Ekintza denbora batean eta espazio batean kokatzea</li> <li>.Kontatzen den arazoaren edo gertaeraren planteamendua</li> </ul> <p><i>-Korapiloa:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>.Istorioko pertsonaien iharduna</li> </ul> <p><i>-Amaiera:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>.Pertsonaiek istorioari nolako irtenbidea eman dioten.</li> </ul> <p><b>Ihardueraren sekuentziarioa:</b></p> <p><i>-Istorioko bat asmatzea:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>.Pertsonaia batzuk sortu edo aukeratzea</li> <li>.Argudio eragile bat bilatzea</li> <li>.Ekintza denbora eta toki jakin batean kokatzea.</li> </ul> <p><i>-Idaztea, irudikatzea eta kontatzea:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>.Ekintzak irudikatzea eta idaztea</li> <li>.Idatzitakoa berrirakurtzea, hobetu edo zuzentzeko</li> <li>.Besteei irakurtzea, kontatzea.</li> </ul>	<p style="font-size: small;">(Taldean, bakarka, zer-nolako laguntza emango zaion eta nork, berariazko materialak edo egokituak...)</p> <p>-Ikasleak istorioa ordenadorean idazten du eta ondoren irakasleak edo kide batek taldeari irakurtzen diote.</p> <p>-Halaber, lana kide batekin egin daiteke. Ikasleak, Panel Fonetiko-Silabikoa erabiliz, ikaskideari testua esaten dio, honek idatziz jaso dezan. Ikaskideak idatzitakoa berrirakurtzen dio, beharrezko aldakuntzak egiteko. Ipuina bukatutakoan, ikaskideak taldeko gainontzekoei irakurriko die.</p>

## HAMABOSTALDIKO LAN-PLANA

**Ikasgela arrunta      Arloa: Matematika    Proposamen didaktikoa: Problemen ebazpena**

Data	Taldearentzako lan-proposamena	Ikaslearentzako egokitzapenak
		(Taldean, bakarka, zer-nolako laguntza emango zaion eta nork, berariazko materialak edo egokituak...)
	<p>Ondoko problema honen ebazpena:</p> <p><i>Ikasgela bateko hogeitasei haur saskibaloiean jokatzera doaz eta bi talde egin dituzte</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Zenbat jokalaria egongo dira talde bakoitzean biek jokalaria-kopuru berbera eduki behar badute?</li> </ul> <p><i>Jokatzen hasi dira eta saskiratze bakoitzak 2 puntu balio dituela erabaki dute. A taldeak 8 saskiratze egin ditu.</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Zenbat puntu jasoko ditu?</li> <li>• B taldeak 12 puntu jaso ditu.</li> <li>• Zenbat saskiratze egin ditu?</li> </ul> <p><i>Pentsa ezazu saskiratze bakoitzak orain 3 puntu balio dituela. Aurreko aldian adina saskiratze badituzte,</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Zenbat puntu jasoko ditu talde bakoitzak?</li> <li>• Zenbat puntu lortu dituzte bien artean oraingo jokaldian?</li> </ul>	<p>Problema beste ikaskide batekin batera egiten du. Horretarako, beharrezkoa izango da ondoko materiala lantzea:</p> <p>- Kartulinazko taula bat, 1etik 50era arteko zenbakiekin, eta ondoko sinbolo hauekin: =, +, -, x.</p> <p>Ikasleak erantzuna kartulinan dagokion zenbakia (13 jokalaria) seinalatuz ematen du. Bere kideak zenbakia iharduera burutzeko diseinatu den orrian idazten du.</p> <p>Ikaskideak ikasleak esaten dizkion eragiketak egingo ditu dagozkion eragiketaren edo eragiketen zenbakiak eta sinboloak, eta baita esaten dizkion emaitzak ere, adieraziz.</p> <p>Beharrezkoak diren programa eta egokitzapenak dituen ordenadore bat izanez gero, problema autonomoki ebatzi ahal izango du.</p>



**ZIKLOKO  
CURRICULUM-  
PROIEKTUA**

**IKASGELAREN  
PROGRAMAZIOA**

**CURRICULUM-  
EGOKITZAPEN  
INDIBIDUALA**

**HIRUHILEKO  
PLANGINTZA**

**ASTEKO EDO  
HAMABOSTALDIKO  
PLANGINTZA**

## BIBLIOGRAFIA

- CARBONELL, F.: *Inmigración: diversidad cultural, desigualdad social y educación*. Hezkuntza eta Zientzi Ministraritza. Curriculumaren Garapenerako Zentroa. Madril, 1995.
- C.N.R.E.E.: *Las necesidades educativas especiales en la escuela ordinaria*. Formación bilduma. M.E.C.-C.N.E.E. Madril 1.989
- C.N.R.E.E.: *Intervención educativa en autismo infantil*. Formación bilduma. M.E.C.-C.N.E.E. Madril 1.989
- C.N.R.E.E.: *Las necesidades educativas especiales del niño con deficiencia motora*. Formación bilduma. M.E.C.-C.N.E.E. Madril, 1.990
- C.N.R.E.E.: *Las necesidades educativas especiales del niño con deficiencia auditiva*. Formación bilduma. M.E.C.-C.N.E.E. Madril, 1.991
- C.N.R.E.E.: *El alumno con retraso mental en la escuela ordinaria*. Formación bilduma. M.E.C.-C.N.E.E. Madril, 1.991
- C.N.R.E.E.: *Recursos materiales para Alumnos con Necesidades Educativas Especiales*. M.E.C.-C.N.E.E. Madril, 1.991
- C.N.R.E.E.: *Alumnos con dificultades de aprendizaje en la Educación Primaria*. M.E.C.-C.N.E.E. Madril, 1.991
- CUNNINGHAM, C.: *El Síndrome de Down*. Paidós. Barcelona, 1.990
- C.WANG, M.: *Atención a la diversidad del alumnado*. Narcea. Madril, 1.995
- DIAZ-AGUADO, M<sup>a</sup>J.: *Interacción educativa y desventaja sociocultural*. Hezkuntza eta Zientzi Ministraritza. C.I.D.E. Madril, 1.993
- FRITH, U.: *Autismo. Hacia una explicación del enigma*. Alianza Editorial. Madril, 1.991
- GALLARDO, M<sup>a</sup> V. y SALVADOR, M<sup>a</sup> L.: *Discapacidad motórica. Aspectos psicoevolutivos y educativos*. Aljibe arg. Granada, 1.994
- EUSKO JAURLARITZA. *Deficiencia Visual y Necesidades Educativas Especiales*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz, 1.992
- EUSKO JAURLARITZA. *Deficiencia Motriz y Necesidades Educativas Especiales*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz, 1.992
- EUSKO JAURLARITZA. *Primer Ciclo de Educación Primaria y Necesidades Educativas Especiales*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz, 1.992
- EUSKO JAURLARITZA. *Retraso Mental Severo y Profundo y Necesidades Educativas Especiales*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz, 1.992
- EUSKO JAURLARITZA. *Autismo y Necesidades Educativas Especiales*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz, 1.992

- EUSKO JAURLARITZA. *Panel Fonético Silábico*. IBE-CERE . Vitoria-Gasteiz, 1.992
- EUSKO JAURLARITZA. *Materiales de Apoyo para la realización de Adaptaciones Curriculares Individuales*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz, 1.994
- HEGARTY, S. eta Beste batzuk. : *Aprender juntos: La integración escolar*. Morata. Madril, 1.986
- JORDAN, J.A.: *La escuela multicultural. Un reto para el profesorado*. Paidós. Barcelona, 1.994
- JUNTA DE ANDALUCIA.: *Intervención educativa con niños de baja visión*. Consejería de Educación y Ciencia. Delegación Provincial de Málaga. Málaga, 1.989
- MARCHESI, A.: *El desarrollo cognitivo y lingüístico de los niños sordos*. Alianza Editorial. Madril, 1.987
- HEZKUNTZA ETA ZIENTZI MINISTRARITZA. *Adaptaciones curriculares*, en: *Materiales para la Reforma*. Etapas de Educación Infantil y Primaria. M.E.C. Madril, 1.992
- OCHAITA, E., ETA ROSA, A.: *El niño ciego: Desarrollo Psicológico*. M.E.C.-C.N.E.E. Madril, 1.988
- OCHAITA, E. eta ROSA, A. (Biltzaileak): *Psicología de la ceguera*. Alianza Editorial, 1.993
- PUIGDELLIVOL, Y.: *Necesitats Educatives Especials*. Eumo Editorial. Barcelonako Unibertsitatea. Barcelona, 1.993
- RITA, J. eta POWEL, S.: *Las necesidades curriculares especiales de los niños autistas*. Eusko Jaurlaritz. Irakas Baliabideetarako Etxea. Gasteiz, 1.992
- ROSA, A. eta OTROS.: *El niño con parálisis cerebral: enculturación, desarrollo e intervención*. Hezkuntza eta Zientzi Ministraritzako Argitalpen Zentroa: C.I.D.E. Madril, 1.993
- RUIZ, R.: *Técnicas de individualización didáctica*. Adecuaciones curriculares individualizadas (ACI) para alumnos con necesidades educativas especiales. (Col. Educación y Futuro). Cincel. Madril, 1.988